

Auzitegietako bidea agortuta, Arakilgo Udala gasbidea geldiarazteko bilera sorta egiten ari da / 6

Iñigo Galarza Arregik Asfaltoko Rallyen kopilotu onenaren saria jaso du bere kategorian / 16-17

Apirilaren 5era arte aurkez daitezke Maria Markotegi eta Nanoipuin lehiaketetan lanak / 22

Biak Bat elkarteak egoitza berria aurki mustuko du, okupazio zentroa bihurtuko dutena / 12-13

Xotak Emakumezkoen Haurren mailako Nafarroako Txapelketa irabazi du merezimendu osoz / 18

Oihane Andueza Imirizaldu idazleak bere lehenengo eleberria aurkeztuko du Lakuntzan / 23



"Tratamendu experimentalarekin nire gaixotasuna frenatu nahi da"

Idoia Arabaolaza Amezua / 2-4

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

Idoia Arabaolaza Amezuaren irribarrea beste puntatik ikusten den horietakoa da, zabal-zabala. Arrasatearra jaiotzez, urte asko daramatza Nafarroan, horietatik 19 urte inguru Lakuntzan. Bizitzak jarri dizkion traba eta oztopoen gainetik, emakume alaia da. Makulopatia miopatikoa eta erretinosi pigmentarioa gaixotasunen ondorioz, itsuen bastoia behar du, baina horrek ez du kikiltzen eta ahalik eta bizitza normalena egiten saiatzen da. Erretinosia RP 121 mutazioak sortu dio, eta Oviedoko Fernandez Vega oftalmologia zentroan parte hartzen den ikerketa bati esker, mutazioan duen informazio okerra zuzentzeko tratamenduaren zain dago.

16 URTEREKIN

Noiz hasi zinen ikusmen arazoak izaten?

16 urterekin begi batetik gaizki ikusten hasi nintzen. Miopia nuen, 11 dioptria, asko, baina zerbait gehiago zegoen, eta ez zekiten zer zen. Bi urte beranduago, 18 urterekin, beste begiarekin hasi nintzen. Orduan eman zidaten diagnosa ondokoa zen: "degeneración macular" delako gaitza nuela. Hori da begiaren makulan orban edo zikatriz bat dagoela, eta orbana sortzen den leku horretan ikusmena galtzen da. Puntu horri puntu itsua deitzen zaio. Garai hartan oso ezezaguna zen gaixotasuna, eta ez zuten ulertzen, pertsona helduetan ematen zelako. Itsu geratuko nintzela esan zidaten 18 urte nituela. Ez zekiten noiz izango zen, handik hilabetera, urte batera edo noiz.

Momentu horretan nola ikusten zenuen?

Erdi aldetik ez nuen ikusten; alboetatik ikusten nuen. Alboetako ikusmena nuen. Ertzetik begiratuko bazenu bezala. Baina horrekin gertatzen dena da pertzepzioa galduaz doala. Izan ere, gizakiok ikusmen pertzepzio hoberena erdialdean dugu, eta galtzen doa begiaren ertzera jotzen baldin badugu. Alboetatik

"RP121 mutazioko informazio okerra zuzenduko didate"

IDOIA ARABAOLAZA AMEZUA TRATAMENDU ESPERIMENTAL BATEKO PARTAIDEA

Lakuntzarrari erretinosi pigmentarioa RP 121 mutazioak sortu dio. Mutazioan duen informazio okerra zuzentzeko tratamenduaren zain dago. Makulopatia miopatikoa du ere

irakurtzen nuen eta nire ikasketak egiteko gai nintzen. Hau guztia nik baino gurasoek hartu zuten okerrago; nolabaiteko errua sentitzen zuten, ea zer egin ote zuten gaizki. Gurasoek nire diagnosiarekin mugitu ziren, Iparraldean egon nintzen, diagnosa ere Italiara bidali zuten, ea zerbait egin zitekeen.

Oso arraroa al zen?

Oso arraroa, oso gaztea nintzelako makula-degenerazioa delakoa izateko. Ez zekiten zer egin, eta zein izango zen progresioa, eta urteak aurrera joan ahala ez zuten ulertzen zergatik orban hori ez zihoan handitzen. Gaitz degeneratiboa izanda, handitzen joan beharko zukeen. Eta ez da handitu. Behin Asturiasen nengoela, oporretan, bertako telebistan entzun nuen Fernandez Vega Oviedoko zentro oftalmolo-

"ITSU GERATUKO NINTZELA ESAN ZIDATEN 18 URTE NITUELA. EZ ZEKITEN PROGRESIOA ZEIN ZEN"

logikoan estatu mailan lehendabiziko makula modulua irekiko zutela. 30 urte pasatxo nituen orduan.

BI GAIXOTASUN

Tarte horretan okerragora egin al zuen zure ikusmenak?

Orbana ez zen handitzen, baina nik nabaritzen nuen gauez geroz eta okerrago moldatzen nintzela. Albistea entzundakoa txanda eskatu nuen Fernandez Vega zentroan. Froga pila bat egin ondoren nire sorpresa izan zen, lehena, nire gaixotasuna ez zela makula-degenerazioa delakoa, baizik eta makulopatia miopatikoa. Dioptriak izateak esan nahi du begia konkabo bihurtzen dela. Denbora gutxian dioptriak asko handitu zitzaizkidanez, mintza edo "membrana" delakoak ez zuten denborarik izan malgutasunez egokitzeko, hautsi egin zen eta atzeko mintzarekin itsatsi zen. Bi mintzak itsatsita ditut. Eta hain zuzen ere hori izan zen orbana edo puntu itsua sortu zidana eta horregatik orban hori ez zen handitu, ez zelako degeneratiboa.

Zein konponbide du horrek?

Gertatu zitzaidana, makulopatia miopatika horrek, ez du bueltarik. Gaur egun, adibidez, txerto batekin prozesua gelditzen dute. Denbora gutxian, demagun urte batean bizpahiru dioptria handitzen bazaizkizu, txerto bat jartzen dute eta mintza bere horretan mantentzen da. Baina nire bigarren sorpresa izan zen, makulopatia miopatikarekin batera beste gaixotasun bat diagnostikatu zidatela: erretinosi pigmentarioa. Horregatik ez dut ikusten gauez.

Zer da erretinosi pigmentarioa?

Gaitz honen ondorioz argi aldaketekin arazoak izaten dira. Begiei asko kostatzen zaie argitasun aldaketei egokitzea eta gaueko itsutasuna, hau da, "ceguera nocturna" delakoa agertzen da. Leku ilunetan ikusmena

"30 URTEREKIN JAKIN NUEN MAKULOPATIA MIOPATIKOAZ GAIN ERRETINOSI PIGMENTARIOA NUELA"

galtzen dut, asko kostatzen zait kokatzea. Eguraldia hodeitsua bada ere bai. Gainera, erretinosi pigmentarioarekin ikusmena kanpotik erdialdera galtzen duzu, hau da, justu nik ikusten nuen tokitik. Hasieran albotik irakurtzen nuen, baina 37 urterekin jada ez nintzen gai alboetatik irakurtzeko. Erretinosiaren ondorioa da. Erretinosia dutenek bukatzen dute ikusten bakar-bakarrik tunel batetik ikusiko balute bezala, erdi-erdtik. Eta azkenean tunel hori itxi egiten da. Eta nik tunel hori ez dut, orbana dudalako.

47 URTE ARTE, IRAKASLE

Bi diagnostiko horiek jasotzerakoan irakaslea zinen. Nola moldatzen zinen lan egiteko?

Irakasle oposizioak gainditu nituenean minusbaliotasun kupoan sartu nintzen. Orduan irakurtzeko eta idazteko gai nintzen oraindik. 24 urterekin etorri nintzen Nafarroara eta nire lehengo lana Altsasun izan zen, Zelandin. Gero Olaztiko herri eskolan egon nintzen bost urtez. Ni pedagogia terapeuta naiz, heziketa bereziko irakaslea, eta talde oso txikiekin lan egin izan dut beti. Talde murriztuak dira, behar bereziak dituztenendako. Baina LH6. Mailako tutorea ere izan naiz. Garai hartan nire ikusmen portzentaia oraingokoa baino altuagoa zen. Urteak pasa ahala ikusmena gutxituz joan zen eta begiko minekin hasi nintzen. Oviedon nire lanposturako euskarri informatiko edo elektronikoko gehiago eskatu nituenean esan zidaten horretaz ONCE arduratzen zela. Baina ni ez nengo ONCEn, eta pila bat harritu ziren.

Zergatik ez zeunden ONCE-n?

Egunerokotasunean moldatzen nintzen, ba ez nintzen sartu. Orduan egin nuen sartzeko eskaera. Eta sartzeko moduan nengo; begi batetik soilik %8 ikusten dut, eta bestetik %6. Esan zidaten ea zeri "begira" nengo bertan sartzeko (kar, kar...), eta ea nola moldatzen nintzen orde-nagailuan ibiltzeko.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



Eta nola moldatzen zinen?

Nik beti lankideekin trukeak egin izan ditut. Adibidez, notak sartzarako orduan nik txostenak grabatzen nituen eta lankide batek nire txostenak idazten zituen ordenagailuz eta nik bere klasea ematen nuen. Horretarako inoiz ez baitut arazorik izan. Irakasle guztiek ostiral arratsaldeko azkeneko saioa aldatzen zidaten, baina niri ez zitzaidan axola. Oso ongi moldatzen ginen. Trukeen erregina nintzen (kar, kar...).

ONCE-ren EUSKARRIAK**ONCE-n sartzea...**

ONCE-n sartzea niretako izan zen mundu berezi bat. Lupa elektronikoa eta ordenagailu egokitu eman zizkidaten, azken hau hitz egiten zuena. 42 urterekin hasi nintzen Interneten nabigatzen, sekulako aurkikuntza. Pantaila handi bat utzi zidaten. Nik testu liburuak azpian jartzen nituen, eta kontraste asko behar dudanez pantailan kontraste handiarekin testuak ikusten nituen. Idazlanak zuzentzeko bikain. Irakasle gisa berriro gozaten hasi nintzen. Autonomia nintzen, txostenak ordenagailuan pasatzen nituen eta nik prestatzen nuen guztia. ONCE-n sartu nintzela esan behar izan nuen Nafarroako Hizkuntza Departamentuan, eta normala denez urtero mediku errebisio bat pasa beharra nuen.

Gaixotasuna nola joan zen garatzen?

Nik ikusi ahal izateko, alboetatik beti ere, kontraste eta distira asko behar dut. Ez da tamaina kontua, hobeto funtzionatzen dut zuria beltzaren ginetiko kontrastearekin, tamainarekin baino. Ikasturtea hasi eta abendurako begiak oso nekatuta izaten hasi nintzen. Gabonetan erreku-peratzen nintzen, gero berriro nekatzen zitzaizkidan, Aste Txurrian erreku-peratzen nintzen, gero Aste Santuan eta gero oporretan. Baina begiak gero eta nekatuago nituen. 46 urte nituela ikasturtea hasi eta berehala, irailean begiko minekin hasi nintzen. Familia medikuak esaten zidan baja ematekotan ez zekiela nola idatzi behar zuen Nafarroako Gobernuak uler zezan baja begiko minarengatik zela. Nafarroako Hizkuntza Departamentura jo nuen galdetzerara, eta nire sorpresa izan zen esan zidatela lanerako ezintasuna tramitatzen hasi behar nuela.



Idoia Arabaolaza. Boluntario talde batek etxeko bidea markatu zuen, gida gisa.

LANERAKO EZINTASUNA**Nola hartu zenuen?**

Oso gaizki, nire nahia ez baitzen laneko ezintasuna izatea. Nik nire lana maite nuen, Zizurren lanean nengoen garai hartan, lankideekin oso gustura eta nire lana egokituta. Ni ez nintzen ezintasanaren bila joan. Eskolan esaten zidaten halakoek luze jotzen dutela, baina otsailean errebisioa egin nuen eta bi egunetara lanerako ezintasuna eman zidaten, 47 urterekin. Ordenagailuak sortzen zidan begiko mina, begiak lehortzen zizkidalako. Oviedon esan zidaten, "soldatzailearen gaitza" deitzen zaiola horri. Begiak izugarri lehortzen zitzaizkidanez eta erretina laserrarekin josia dudanez, hortik ere tiraka hasi zen. Horregatik mina, eta erretina askatzeko arriskua. Begiak maiz hidratatu behar ditut, eta 2021ean ere kataratak izan nituen. Hori bai, tentsio okularra primeran dut (kar, kar...).

RP121 ADN-aren MUTAZIOA Ikerketa proiektu berezi batean zaude, ez?

Erretinosia dela eta, Oviedon proiektu batean sartuta daude, AEBetan ba omen dagoelako esperimentalak den tratamendu bat. Proiektuan sartzea proposatu zidaten eta estatu mailan 40 pertsonak eman genuen izena. Ikerketa eginda, konturatu ziren erretinosiak iturri ezberdinak dituela. Kasu batzuetan neurologikoki arazoren bat izan ondoren sortzen da erretinosia, giltzurrunetako arazo batzuegatik sor daiteke, baina nirearen jatorria begia bera da. Ikerketako 40 pertsonetatik bakarrik 14k dugu erretinosiaren jatorria begian, eta Fernandez Vega oftalmologok 14 pertsonako talde horrekin ikerketan jarraitu dute.

"OVIEDOKO IKERKETAK DIO RP121 ADN-AN MUTAZIOA DUDALA. AITAREN AMAREN ALDETIK DATORKIT"**"FAMILIAKO EMAKUME GUZTIAK RP 121 MUTAZIOAREN ERAMAILEAK GARA; SOILIK NIK GARATU DUT"****Zenbatero zoaz Oviedora?**

Urtean bitan, jarraipena egiteko. AEBetan hasi ziren duela urte asko tratamendu horrekin. Konturatu ziren hainbat kasuetan ez zela ezer gertatzen, beste kasuetan erretinosiak jarraitzen zuela, beste kasu batzuetan gelditzen zela eta kasu batzuetan hobekuntza pixka bat egon zitekeela. Ez zekiten zergatik, jatorriaren arabera dela konturatu ziren arte. Egin zidaten ikerketan ondorioztatu zuten nik RP121 ADN-aren mutazioa dudala. RP letrek "Retinosis Pigmentaria" esan nahi dute. Eta 121 horrek esan nahi du, laburbilduz, mutazioa nire aitaren amaren aldetik datorkidala. Goi mailako ikerketa da, puntu horretaraino iritsi dira.

Oviedon egiten al dute ikerketa?

Bai. Esperimentalak denez, aurrekontu guztia beraiek ordaintzen dute. Bestela, dirutza litzateke. Ikerketarako behar zituzten analisi guztiak nahi izanez gero nire kabuz egin nitzakeen, Oviedoraino ez mugitzeko, eta lortu nuen analisisien %80 inguruan dagoen laborategi batek egitea. 10.000 euro balio zuten. Baina beste %20 egiteko Madrilera joan behar nuen. Oviedon esan nien ez zizkidatela analisi guztiak batera egiten, eta eurak egingo zizkidatela esan zidaten, dohainik.

Hortaz zure arazoa genetikoa da eta aitaren amaren aldetik dator.

Nire familian ikusmen arazoak egon ote diren galdetu zidaten. Nire aitak ere ikusmen arazoa du, baina ez du nirearekin zer ikustekorik. Nire amona itsu geratu zen eta ez zekiten zergatik. Badauzkat hiru izeba koloreekin arazoak dituztenak. Koloreak aldatzen ditugu: granatea-marroia, urdin iluna-bel-tza... hori erretinosiaren ezaugarri bat da. Ondorioztatu zuten nire aitaren aldetik, Arabaolazatarren aldetik emakume guztiak RP 121 mutazioaren eramaileak garela, ni tartean. Esan zidaten hori dela dugun mutazioa, genetikoa dela. Nik garatu dut, oraingo beste inork ez, baina emakumeak eramaileak gara. Biharko egunean norbaiti gertatuz gero badakite nondik heldu.

Kasu horretan zer egingo lukete?

Tratamendua omen da odola atera, mutazio hori kendu eta informazio zuzena sartu. Eta ea zer gertatzen den ikusi. Une honetan tratamendu horren

zain nago, urte bakoitzean mutazio mota bat lantzen dutelako eta badirudi aurten nirea tratatuko dutela. Oviedokoe diru laguntza eskatu zuten Estatuan, baina erantzuna izan zen beste lurralde batzuetan entsegu horiek egiten ari direla eta orduan ez dutela dirua horretara biderratu. Fernandez Vegatarrek egin dutena izan da kanpoko laborategi bat aurkitu eta nolabait "conejiillo de indias" gisa eurek pazienteak eskaintzea. Ez dakit zein laborategik hartuko duen ikerketa egiteko ardua. Otsailean kontsulta dut Oviedon eta pentsatzen dut orduan esango didatela.

Hortaz bat batean deitu zaitzakete esanez zure mutazioa aztertzenha-

siko direla eta prestatzeko Berlinera, Londonera edo X tokira joateko.

Halakozerbait izango da. Nonbait, RP 121 mutazioan dudatan informazio oker hori zuzenduko didate. Ez dakit nola egingo didaten odol transfusioa. Halako gauzak nahiago ditut momentuan jakitea. Joan, egin dezatela egin behar dutena eta kitto. Ez dut galdera gehiagorik egin. Aurrekoan beste proba bat egin zidaten: odola atera, nire odola tratatu, eta 12 ordutara joan behar nuen eta sortutako likidoarekin begietan tantak bota behar nituen. Egon nintzen ia urte bat Oviedora joaten. Koloreekin hobekuntza irabazi nuen, baina momentuko kontua izan zen.

GUTXIENEZ, FRENATU

Zientziarena harrigarria da.

Fernandez Vegatarrena sekulako zentroa da. Proiektu honetan duela 7 bat urte sartu nintzen, eta ez dit kostu ekonomikorik sortu, ikerketa beraiena delako, Fernandez Vegatarrena. Beraiek egindako ikerketa eta informazio guztia, gainera, beste medikuetara eraman dezaket hala behar badut. Beraien filosofia da: guk diru hau gastatu badugu ondorio hauek lortzeko, zertarako galdu behar du edo erabili behar du diru kopuru berdina beste zentro batek ondorio berberetara heltzeko? Erabili ditzatela hemen ditugun oinarriak.

Zure mutazioa zuzentzearekin zein da helburua?

"RP121 MUTAZIOAN DUDAN INFORMAZIO OKER HORI ZUZENDUKO DIDATE. AURTEN IZANGO OMEN DA"

"PLANTEAMENDUA DA GAIXOTASUNA FRENATZEA. ETORKIZUNERAKO GARRANTZITSUA DA"

Beraien planteamendua da behintzat gaixotasuna frenatzea. Esan didate beste mutazio kasu batzuetan egon direla zenbait kasu nolabaiteko hobekuntza sumatu dutena. Baina, behintzat, frenatu daitekela. Eta niretako hori sekulakoa litzateke.

Etorkizunera begira zure familiako emakumeendako lasaitasun handia litzateke.

Norbaitek ikusmenean zerbait izango balu hasieratik frenatuko liokete. Beraz, etorkizunari begira handia litzateke. Oviedon Arabaolaza abizena gorritz agertzen da. Esaten didate norbaitek arazo bat badu, ikusmenean edo dena delakoan, mesedez hara joateko. Beraiei ere ikerketarako ongi datorkielako.

"Etxera joateko bidea markatuta dut"

IDOIA ARABAOLAZA AMEZUA

Lakuntzan bakarrik bizi zara eta bizitza autonomoa egiten duzu. Kafea hartu, paseatu, erosketak egin...

Nire etxean ongi moldatzen naiz. Kozinatzen dut, garbigailua jartzen dut... Dena memorizatuta dut. Badakit labeari hiru klik eskubitarra emanda zer den, klik bat ezkerretara zer den, eta horrela etxetresna guztiekin. Oso antolatua izan behar naiz, hori bai.

Telebista, liburuak, telefonoa... teknologian sekulako aurrerapenak daude, ezta?

Aspalditik audioliburuak entzuten ditut. ONCE-ko liburutegian sartu, jaisten ditut eta entzuten ditut. Telebista pantaila handia daukat eta beno, aktore baten aurpegia edo begiak ikusteko telebistara hurbildu behar dut, beti alboetatik, baina ohitu naiz entzutera. Nire etxean denak hitz egiten du: Iphone-a dut, ahotsaz funtzionatzen duena, Siri, Voice Over eta halakoen bidez eta horrela. Sukaldatzeko pisuak ere hitz egiten du, tentsiometroak ere, nire erlojuak ere hitz egiten du... horiek guztiak ONCE-ren bitartez lortutako erremintak dira. Baliabide asko ditu, egunerokotasunean edo etxean moldatzeko. Eta aukera gehiago daude, domotikari esker, baina momentuz moldatzen naiz. Teknologiarik eskerrak eman behar dizkiot, eguneroko gauza sinpleetan autonomia eta independentzia ematen didalako.

Eta kalean?

Gaueko itsutasuna dudanez, egunez ateratzen naiz gehienbat. Paseoa, kafea, pintxoa, erosketak, poteoa... egiten ditut. Bastoiarekin ateratzen naiz. Lakuntza herri



UTZITAKOA

txikia da baina zerbitzu asko ditut bertan, eta egunez moldatzeko ez dut inolako arazorik. Gainera, laguntza asko dut jendearen aldetik. Izugarria. Jende guztiak badaki zein den nire arazoa eta laguntza besterik ez dut jasotzen. ONCEra joaten naizenean esaten didate ni naizen modukoa izanda, oso aktiboa, zergatik ez naizen Iruñera bizitzera joaten, ONCEn bertan gimnasioa, ikastaroak... aktibitate asko daudelako. Erantzuten diet nik herrian ibiltzeko dudatan askatasuna niretako oso garrantzitsua dela, Iruñean izango ez nukeena. Oso ongi bizi naiz Lakuntzan. Pentsa, ematen didan laguntzaren erakusle, herrian boluntario talde bat sortu zen kaleko seinaleak modu berezian margotzeko, ikusmen arazoak ditugunok hobeto ikus genitzan.

"ONCE-KOEI ESATEN DIET LAKUNTZAN HAMAIIKA PERTSONA ON BAINO GEHIAZ INGURATUTA NAGOELA"

Nola sortu zen seinaleak margotzeko ideia hori?

Edozein marra txuri ongi margotuta badago eta argiak ematen badio, niretako gida edo nolabaiteko laguntza da, jakiteko non nagoen edo nondik joan behar naizen. Behin hori aipatu nuen, eta boluntario talde bat sortu zen kaleetan seinaleak eta marrak margotzeko. Alkatea margoa erostera joan zenean eta zertarako nahi zuen esan zuenean, esan zioten hauts berezi batzuk daudela, kristal modukoak, margoaren gainera botata erreflexu gehiago ematen dutenak. Eta probatzea

erabaki zen. Herriguneko zonalde garrantzitsuetan, eta nire etxera joateko ohiko ibilbideetan seinaleak margotu eta hauts berezi horiek bota zituzten. Hori izan zen lehenetara. Baita eskola ondoko zebrabideetan eta seinaleetan eta gune garrantzitsuetan.

Auzolanean egin zen margoketa eta zu obra zuzendari ibili zinen. Efektu berezia nabaritzen al da? Margotu zutenetik hobe zabilta?

Margotuta daudenetik hobeto moldatzen naiz. Nik hobeto ikusteko behar dut argitasunak justu hor ematea. Eta erreflexua nabaritzen da. Behintzat nire etxera datorren kalean erreferentzia puntuak daukat. Familiakoei esan nienean boluntario talde bat sortu zela herrian lurrean seinalez tapena margotzeko... hori oso polita da. ONCEn beti esaten diet: ez naiz Iruñean ONCEn egongo, baina Lakuntzan hamaika pertsona on baino gehiagorik inguratuta nago. Eskertzekoa da. Ez bakarrik margotzearena. Nire egunerokotasunean herritarrengandik jasotzen dudan laguntza niretako babesa da. Iluntzean etxera laguntzen didate, dirua ateratzerakoan lagundu... ez dut inolako arazorik. Justu kontrako. Arrasatera noanean, nire herria da eta kontrolatzen dut, baina askoz ere askatasun gehiagorekin sentitzen naiz Lakuntzan han baino. Nire bizimodua egiteko independenteago. Etxera joateko bidea markatuta dut eta jende onez inguratuta nago. Eskerrak Lakuntza herriari. **Filosofia aktiboa duzu: ahalik eta plan guztietara apuntatu.** Bai. Edozein aukera sortzen dela bai herrian edo bai herritik ateratzeko, gustatzen zait. Gainera, ezagutzen nautenek badakite zer dakarren nirekin ateratzea. Planak ahalik eta gehien aprobetxatzen ditut.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Berri ona eta berri txarra

Ikerketa batean, berri ona ala txarra, zein jaso nahi zuten lehenengo jendeari galdetuta, gehiengo handiak lehenengo txarra emateko eskatu zuten. Normalean, nahiago omen dugu lehenengo txarra jaso eta, horrela, bigarren onaren onurak aurreko txarraren nahigabea arindu eta gaintzen lagunduko du.

Bada, aurreko batean, gosaria ozpintzen duten horietako baten berri izan genuen. Hain zuzen ere, euskalgintzako zutabe garrantzitsuenetakoa den Ikastolen Elkartearen lehendakariak bere lehenengo liburu pertsonala argitaratu zuen. Eta nola? Bada, gaztelaniaz. Sakon pentsatuta, bere argitalpenari proiektzioa eman nahi izan omen zion. Tellituren ereduari segituz, ez genuke euskal sortzailerik izanen, ez idazlerik, ez abeslaririk, ez bertsolariarik, eta ez besterik. Jarrera horrek muzin egiten dio ikastolek eta euskalgintza osoak euskaraz duintasunez bizitzeko egiten duten lanari eta aldarrikapenari. Eredu makurra! Argi dago, batzuentzat euskara elementu folkloriko hutsala dela. Horregatik,

euskalgintzako erakundeetako arduetan pertsona koherenteagoak egon beharko lukete; bestela, euskaldunok duintasunez eta eskubidez bizitzeko egiten dugun aldarrikapena deskreditatu egiten dute, besterik ez. Alegia,

EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEETAKO ARDURETAN PERTSONA KOHERENTEAGOAK EGON BEHARKO LUKETE

euskaraz bizi nahi izatearen erabakimenari, iruzurra egiten diote. Bestalde, nik behinik-behin, aspaldi utzi nion idazle euskaldunek gaztelaniaz idatzitako liburuak irakurtzeari, niregan proiektzio gutxi dute.

Txanponaren beste aldean, Shakirak, bikote harremana hautsita, Piqueri ateratako kanta entzutetsua dela eta, Iratxe Aguilera gazte gasteiztarrak, Kai Nakai goitizenez ezaguna denak, abesti horren euskarazko bertsioa eginda, milioi batetik gorako entzunaldi-ikustaldi izan omen ditu egun gutxi batzuetan sare sozialetan. Ikusten denez, euskaraz bizitzeko nahiari lotutako egitasmoak arrakasta izugarria lortu du. Eredu txalogarria!

Euskaldunok, eta euskarak, aurrera eginen badugu, kontzienteki eta erabakimenez jokatu beharrean gaude; itxurakeriak, folklorismoak eta postureoak alde batera utzita.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Gozatzen jarrai dezagun!

ERRAFAILAK SAKANAN

Uda aspaldi amaitu zen eta horrekin batera, komunikabideek hilabeteetan zehar, jai giroetan eman izan diren erasoengatik inguruan zabalduzako mezu alarmistak. Bada, jaiak, parrandak eta aisialdi eremuak ez dira amaitu eta erasoak, egiaz, ezta ere.

Baina, buelta eman diezaiogun egoerari eta Nerea Barjolak azaldu bezala, imajina dezagun diskurtsoen produkzio bat non esaten den gizon guztiak etxera joan behar direla goizalde baino lehen edo ezin direla atera sexu erasoak egiteko arriskua dutelako.

Honek guztiak, oraindik helburu bat betetzen jarraitzen du: alarma eta izua sortzea, sexu izua inokulatzea. Zisheteropatriarkatuaren tresna garrantzitsua da izu sexuala: emakumeon* eta sexu disidenteon gaineko kontrol soziala gauzatzen duelako, beldurraren eta jokabideak diziplinatzearen bidez gu menderatzeko; estrategia honen helburua gorputzok diziplinatzea da, izan eremu publikoa askatasunez okupatu nahi dugulako, etxean eta lan eremuan mendekotasun rola alde batera utzi nahi ditugulako edota arau zisheterosexualekin hautsi nahi dugulako.

Aldiz, argi daukagu: gizonak erasotzeari utzi behar diote eta indarkeria matxistan duten erantzukizunaz jabetu behar dira, erasotua izatearen

ardura ez baita gurea; eta hau gutxi balitz, are gehiago biktimizatzen gaituzten mekanismo polizialak jartzen dira martxan gure segurtasunaren aitzakipean, eta guk badakigu poliziak ez gaituela zaintzen.

Neska gazteok* ez dugu beldurrik eta ondo pasatzen jarraituko dugu. Feministok jai giroak, aisialdi eremuak eta bestelako espazioak

borrokatzen, erasoengatik aurrean autodefentsa feministaz erantzuten eta guztiarentzat seguruak izango diren espazioak okupatzen jarraituko dugu. Borrokatzen jarraituko dugu emakume* eta sexu disidenteok beldurrik gabe bizi eta gozatzeko eskubidea dugulako.

Sakanako neska* gazteok gozatzera gatoz! Antolatuta eta batu borroka feministara!



OBJEKTIBOTIK



50 Irigo Aritza ikas

@irigoaritzalikas

Egun hauetan ziuurtenik gure ahotan maiz entzungo ditugun #BurundakoHizkera-ko hitzak ikusgai ditugu. Amukelen zain!



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
 948 564 275 (3 luzapena)
 619 821 436
 Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
 618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
 Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
 Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
 eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
 Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
 Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
 Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
 Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
 31800 Altsasu
 948 564 275
 618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gasbideagatik udalak gobernuarenean ate joka

Etzeberri eta Lekunberriko industrialdea gasbide batekin Aralar mendian barna betetzeko proiektuari beste alternatiba bat proposatu diote Larraungo eta Arakil aldeko toki erakundeek. Auzitegi Gorenak ez du tramitera onartu haien helegitea

ARAKIL

Nedgia Navarra SAK Etzeberri eta Lekunberriko industrialdea lotuko dituen eta 14 km-ko luzera duen gasbide bat eraiki nahi du Aralar mendian barna. Auzitegien bidea agortuta, Larraungo alkate Mikel Uharte Martija eta Arakilgo Udaleko alkate Oihana Olaberria Jakak hainbat atetan jotzera ekin diote. Azken bilera atzo arratsaldean izan zuten Mikel Irujo Amezaga Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontseilariarekin eta Izaskun Goñi Razkin Enpresa politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lan zuzendari nagusiarekin.

Aurretik proiektuan ardura zuzena izan duten eta sinadura jarri duten pertsonekin bildu dira: Nedgiako zuzendaritzako kideak, Nasuvinsako zuzendari kudeatzaile Alberto Baiona Lopezekin, Lekunberriko alkate Gorka Azpiroz Razkinekin, Ingurumen zuzendari nagusi Pablo Muñoz Trigorekin eta Industriaren, Energiaren eta S4 Proiektu Estrategikoen zuzendari Uxue Itoiz Mariñelarenarekin. Guztiei ere alkateek esan diete Lekunberriko industrialdeko gas beharra ase beharra dagoela, baina mahai gainean dagoen proiektua "zentzugabekeria hutsa" dela, "inork ez digu gasbidea Aralarren jartzeko pisuzko arrazoirik eman". Olaberriak gaineratu duenez, "gobernuaren txostenak berak dio aukeratutako alternatiba ez dela egokiena, ingurumen kalte handiak sortuko dituela".

Bileretan udalek alternatiba ere proposatu dute: "humanizatutako bide batetik, Plazaolatik, eramatea gasbidea. Adituen txostena eta proiektua egiteko 35.000 euro ordaindu ditugu udalok. Alternatiba egingarria da", jakinarazi du Olaberriak. Gaineratu duenez, aurreneko bileretan "inork ez digu arrazoi bat bera eman azaltzeko zergatik joan behar duen gasbideak Ara-



Etzarren gasbidearen trazaduraren kontra egindako bilkura. UTZITAKOIA

ALKATEEK ARGI DUTE "PROIEKTUA GELDITZEA BORONDATE KONTUA DELA"

lartik eta ez humanizatutako bide batetik. Ez digute batere argitu zergatik tematzen diren Aralartik pasatzen. Gainera, jasangarritasunaren izenean defendatzen ari dira proiektua".

Olaberriak azaldu duenez, "Muñozek eta Itoizek hainbat txosten irakurtzeko konpromisoa hartu dute, orain arte irakurri gabe zituztelako. Itoizek esan zigun ez zuela proiektua ezagutzen, gainbegiratu zuela. Ingurumen teknikarien txostena begiratzeko eskatu genion". Alkateak gaineratu duenez, "Itoizek esan zigun atzera egiteko berandu izan zitekeela. Guk argi dugu proiektua gelditzea borondate kontua dela". Esan duenez, "haserre eta minduta gaude. Gauzak beste modu batera egin behar ziren". Horregatik, bilera guztietan hainbat txostenekin batera, landutako proiektuaren kopiak

utzi dituzte. Zuzendari nagusiek haiek aztertu eta hots eginen zietela esan zieten, baina alkateek ez haien ez beste inoren deirik ez dute jaso.

Epaia

Nedgia Navarra SAREN 2018koa da gasbide egitasmoa. Hainbat trazadura aztertu ondoren Aralarren alde egin zuen. "Legitimitate hasieratik gaude gai honekin", gatzigatu du Olaberriak. Trazadurarekin ados ez zeuden toki erakundeek Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenara jo zuten lehenik. Epailak ez zuten haien alde egin.

Ondoren Espainiako Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzien salan helegitea aurkeztu zuten Larraun, Arakil eta Irurtzungo udalek eta Alli, Astiz, Oderitz, Etzeberri, Egiarreta eta Etxarango kontzejuek aurkeztutako helegitea ez zuen tramitera onartu azaro hasieran. "Jasotzen dituen eskaeren %8 onartzen ditu. Interes orokorraren kontrako auziak onartzen ditu eta hau interes puntuala dela esan du", azaldu du Olaberriak. Gorenaren auto horrekin auzitegiaren bidea bukatu da.



Ihabarko Eskribarena etxean alokairurako etxeak eginen dira. ARAKILGO UDALA

Udalak aurten eraberrituko du Ihabarko etxea

Erosi duen eraikina eraberritu eta bost etxebizitza egitea aurreikusten da. Alokatzeko izanen dira

ARAKIL / IHABAR

Nafarroako Gobernuarekin oraindik hitzarmena sinatu ez badu ere, Arakilgo Udalarik 300.000 euro emanen dizkio. Hala jaso dago foru administrazioaren aurten aurrekontuetan, EH Bilduren emendekin bat onartua izan ondoren. Oihana Olaberri Jaka alkateak jakinarazi duenez, hitzarmen eredu esku artean dute eta baldintzak lantzen ari da udala gobernuarekin.

Alkateak azaldu duenez, "Ihabarko Eskribarena etxea da eraberrituko dena, elizaren parean, bazter batean dago". Azaldu duenez, "Guztia lotzen ari gara, baina litekeena da bost etxe egitea: bi 90 m²-koak familiendako edo izanen direnak eta beste hirurak txikiagoak, bikoteendako edo banakoendako. Alokatzeko izanen dira". Jakinarazi duenez, "etxearen beheko partean espazio handi bat geldituko da eta parte hartze proiektu baten bidez erabakiko da zer erabilera eman. Ihebarrek zeresana izanen dute, baina parte hartze prozesua arakildar guztiei zabalik egonen da".

Ibarreko gazteek eskatuta, Arakilgo Udala etxebizitzari buruzko proiektua lantzen ari da, "gazteek hemen nahi dutelako bizi". Aldi berean, Sakanako Mankomunitateko etxebizitza batzordean egindako lanketa ere baliatzen ari da. Arakildarrak ibarrean errotzeko etxebizitza politika horren ondorioa dira, batetik, Hiriberrin etxe berriak egiteko proiektua, etxe zahar bat

eskuratu eta hura eraberritzeko asmoa bertan behera gelditu baita. 15-20 pertsonen dute interesa. Bestetik, udalak ibarreko herrietan etxe zaharren bat erosteko aukera aztertu zuen eta "Ihabarren tokatu zen", azaldu du Olaberriak. Esan bezala, alokairurako etxebizitzak izanen dira. Horrekin batera, Arakil lehentasunezko zaharberritze eremua da. Ondorioz, etxebizitzak zaharberritzen dituztenek dirulaguntza handiagoa jasoko dute Nafarroako Gobernutik.

Web orria berrituta

Urte hasieran Arakilgo Udala web orria guztiz eraberritu du. Hasteko domeinua .net izatetik .eus izatera pasa da, hau da, www.arakil.eus. Atariko lehen orrian ibarreko mapa interaktiboa dago, udalerrira osatzen duten 12 herrien berri jasotzeko bidea ematen duena. Horrekin batera, azken albisteak, agenda, ohiko izapideetarako, galerietarako eta onlineko prozedurak egiteko sarbideak daude.

Goiko menuan udal antolaketari buruzko loturaz aparte, udalak landutako hiru proiektuen berri ematen duena dago: Arakilgo tokiko nekazaritzako tokiko barietateen, parte hartze prozesuaren eta Aixitako gazteluaren berri jaso daiteke. Ezagutu Arakil ibarreko industria, historia, ondarea, kontzejuek eta ibarreko argazki galerietara eramaten du. Berriak, agenda eta harremanetarako bidea osatzen dute goiko menua.




Kutxa honen edukiak bizitza aldatuko dizu

Irisgarritasuna denon eskura!

Nafarroako Gobernuak hainbat gailu erosteko dirulaguntzak emango ditu adineko, ezindu edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat.

Autonomia eta zaintza pertsonalerako, segurtasunerako eta partaidetza eta gizarteratze sozial eta komunitariorako produktuak.

**PARTE-HARTZE ETA GIZARTERATZE
SOZIAL ETA KOMUNITARIOA
BULTZATZEKO LAGUNTZA PRODUKTUAK**



Informa zaituz
laguntzaproduktuak.nafarroa.eus
848 42 69 00

Sanantondarren topaketak



UTZITAKOA

Dorrao. Hildako kofradeen aldeko meza eta erresponsua izan ziren lehenik. Itur-aldea elkartean zozketa bidez ardurak berritu zituzten: Angel Pueio Lizarragaren ordez Jose Migel Razkin Lizarraga da priore berria, eta laguntzaileak Agustin Lizarraga Etxeberria eta Juan Patxi Lizarraga Pueio. Gaur egun kofradian 17 kide daude, hiruk kofradia uztea erabaki ondoren.



Bakaiku. 82 kofradeetatik 20 izan ziren mezan, bazkaltzen 32. Pandemiagatik bi akta irakurri behar izan zituzten. Berretsi zen emakumezkoen sartzeko eskaera beste edozein bezala aztertuko zela. Eduardo Urrestarazuk maiordomo ardura Xabier Goikoetxea-Ziordiarri utzi zion. Belero berria, berriz, Pedro Joxe Zelaia, Pexe, da.



UTZITAKOA

Iturmendi. Kofradiak 24 kide ditu. Baja eta alta bana izan ditu: Fermin Gabirondo eta Antonio Rivera. Francisco Sanchezek priore lekukoa Javier Jungituri pasa dio. Banderaduna Jesus Galarza da. Kofradiaren estandarte zaharberritzea erabaki zuten. Lana artzapezpikutzaren bidez ezagutu duten aditu batek eginen du 1.800 euroren truke.



Urdiain. 43 kide ditu, azken bilkuratik hiru baja izan ditu kofradiak Juan Jose Andueza, Antonio Goikoetxea Mendiluze eta Daniel Agirre Etxeberria. Ardurak ere berritu zituen: Iñigo Etxeberria eta Josu Lanas maiordomoen lekukoa Javier Aiestaranek eta Jose Ramon Irigoienek hartu zuten. "Ateak denondako daude zabalik", azaldu zuten.

KINTOAK



Olatzagutikoek emanen diote hasiera kinto ospakizunei

Dagoeneko haien festarako guztia nahikoa lotuta dute, baina asteartean guztia lotzeko afari-merendu bilera egiten dute. Ospakizunak asteazkenean hasi eta domekara arte iraunen dute. 2004an jaiotako hamahiru gaztek osatzen dute Olatzagutiko aurtengo kintada: Aimar Vicente Lopez de Goikoetxea, Iñigo Quintana Beraiz, Koldo Mentxaka Larraza, Ander Amezgarai Gomez, Alaitz Gabirondo Lopez, Unax Trevejo Rodriguez, Gorka Ruiz Larraza, Iker Andueza Arregi, Asier San Roman Alves, Paula Gaspar Caballero, Maren Arrizabalaga Otxoaerrarte, Maria Trevejo Barcenilla eta Kiara Agudo Sanz.

Kinto eskea asteazken goizean goiz hasiko dute. Aurreneko egunean industrialdea eta herriko establezimenduak bisitatuko dituzte. Gainontzeko egunetan hamaiketako garaian elkartu eta ondoren egiten dute kinto eskea Itxabela txaranga lagun dutela. Ostegunean beti kintoak batuko dira festara, eta larunbatean herri guztia. Gaztetxean ostira-lean kontzertua eta larunbatean erromeria izanen dira.

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN 10:00-12:00

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

IHOTEAK

ETXARRI ARANATZ


GARIKUNDE

ETXARRI ARANAZKO KINTOAK

OTSAILAK 2 Osteguna

19:00 Kintoak txatarrez jantzita diru eske aterako dira.

Datozen bi ostegunetan ere, hilak 9 eta 16, Andrekunde eta Garikunde, txatarrez jantziko dira kintoak.



Eraberrituko duten lixibiatuen putzua. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Hondakindegian lan bat egiteko eguraldiaren zain

Prebentzio moduan eta ihesak saihesteko lixibiatuen putzua indartu nahi da

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Arbizun duen hondakindegian pilatzen ditu ibarrean jasotakoak. Hondakinek ura dutelako edo euria egitean ura iragazi egiten da, materia batzuk disolbatu eta behera egiten dute. Lixibiatu horiek jasotzeko putzua du hondakindegia, eta hura egokitu nahi du orain. Mank-eko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkianek azaldu duenez, "putzuaren laminaren egoera aztertzeko ez da inolako ikuskaritarik egiten. Mank-ek putzuaren lamina ikuskatzeko eta filtraziorik zuen jakiteko kreditatutako erakunde bat kontratatu zuen. Hark aztertu zuen eta egoera onean dagoela ziurtatu zuen".

Hala ere, "lixibiatuen isuriak saihestu eta prebentzio modura, putzua egokitu eginen dugu", jakinarazi du Gardek. "Oraingo laminaren gainean drainatze

sistema jarriko dugu eta haren gainean beste lamina bat, hondakindegiko lixibiatuak jasoko dituenak", argitu du. Zehaztu duenez, "lamina berria hondatuko balitz lixibiatuak drainatze sistemara pasako liraterke eta handik kuxatila batera. Lamina konpondu ondoren, punpa baten bidez, lixibiatuak putzura buelatuko liraterke.

Lanak eman eta 2022ko udan egitekoak ziren. Baina eraikuntza materialen prezioen gorakadak dena gelditu zuen. Izan ere, "administrazioek ezin dugu aurrekontua %10 baino gehiago handitu. Azkenean, lortu dugu enpresarekin akordioa". Asprosurren enpresa da lanak egiteaz arduratuko dena eta haien truke 82.651 euro jasoko ditu. Lanek, "hiru aste iraunen dute eta komeni da euririk ez egitea, baltsarik ez dagoelako eta lixibiaturik ez sortzeko", argitu du teknikariak.

Gorabeheren berri app bidez emateko aukera

Línea Verde aplikazioak udalari zuzenean hiri ekipamenduan atzemandako kalteak jakinarazteko aukera ematen du. Baita udalaren oharrak jasotzeko ere. Udalak altsasuarrek zerbitzua erabiltzera animatu ditu

ALTSASU

Altsasuko Udalak zuzeneko komunikazio kanal berria du, Línea Verde zerbitzuarekin bat egin baitu. Edozein telefono mugikorretarako baliagarria den aplikazioa da, Google Play edo APP Store bidez doan deskargatu daitekeena. Haren bidez altsasuarrek ikusten dituzten kalteen berri udalari zuzenean jakinarazi diezaioke, udalak konpon ditzan. Udaletik azaldu dutenez, "zerbitzu horren ezarpenaren bidez eta altsasuarren parte hartze garrantzitsuari esker, herri-tarren gizarte ongizaterako itxaropenak beteko dituen udal-erri bat lortu nahi da".

Gorabehera baten berri emateko aplikazioan sartu eta "Gertaera berria" botoia sakatu behar da. Zerrenda bat agertuko da eta erabiltzaileak egoki jotzen duena aukeratu beharko du. Aplikazioak automatikoki gorabeheraren koordinada zehatzak hartuko ditu. Hurrengo pausoa intzidentziaren berri ematen duen argazki bat egitea, eranstea eta horri buruzko oharra idaztea da. Horiek guztiak eginda, "Bidali" botoia sakatuta udal langileek jakinarazpenaren berri jasoko dute, antzemandako gorabeherari konponbidea emateko pausoak hasiko dituzte. Bestetik,



Telefono mugikorreko aplikazioa udaletxe parean zabalik.

gorabeheraren egoera aldatzen den bakoitzean haren berri eman duen herritarrak jakinarazpena jasoko du mugikorrean.

Beste aukera batzuk

Jakinazpenak egiteko aukera emateaz aparte, aplikazioak aukera emanen die hala nahi duten herritarrei udalaren zerbitzu publikoko informazioa mugikorrean jasotzeko, esate baterako: kale bat trafikorako moztuko dela, udal ikuskizun jakin batzuen ordutegia edo ura edo argia moztetakoak non eta noiz izanen diren.

Udalerrian dauden interesgune nagusiak eta horri buruzko informazio garrantzitsua ere kontsulta ditzakete.

Aplikazioaren bidez, erabiltzaileak ingurumen arloko edozein kontsulta ere planteatu dezake. Nahikoa da "Kontsulta berria" aukera hautatzea. Gehienez 24 orduko epean, gaian aditua den talde baten erantzuna jasoko du, erabat doan. Línea Verdek 902 193 768 telefonoaren bidez ere eskaintzen ditu bere zerbitzuak, 08:00etatik 17:00etara; deiaren kostua 0,07 euro minutuko da.

kaxeta
LIBURUEN DENDA

IBON MARTIN
EL LADRON DE ROSTROS

Hemen salgai!

foto.kopia@kaxeta.net
628 542 579 | 948 460 477

Txalaparta
TABERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

xapatero
taberna

Etxeko krocketak
eta bokatak

948 460 162 - Etxarri Aranatz

PORTUKO
elkartea

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

Txokolate eta kremazko trentzak
(3 egun lehenago eskatu)



Elkarteko kideak eta teknikaria bilketa egiten den egoitzaren alean.

Bigarren ez elkartasun bilketa antolatu dute

Sakana Harrera Haranako kideak egoera onean dauden objektuak biltzen ari dira, ondoren azoka egiteko


ALTSASU

Ilbartzaren 13an ateak zabaltu zituen Sociedad Deportiva taberna zenak. Eta hala egingen du apirilaren 14ra arteko ostiraletan, 10:00etatik 13:00etara. Joan den urtean bezala, Sakana Harrera Haranako kideak egonen dira udalak utzitako egoitzan. Haiek arduratuko dira ostiraletan egoitzako ateak zabaltzeaz eta herri-tarrei dei egin diete objektuen elkartasunezko bilketan parte hartzeko. Etxean ditugun, erabiltzen ez ditugun eta egoera onean dauden arropak, jostailuak, bitxiak, oinetakoak, maindireak

eta abar gustura asko jasoko dituzte. Taldeko kideek jaso ahala materiala sailkatu egiten dute. Jasotako guztia apirilaren 23an egingen den elkartasun azokan salgai jarriko dute.

Antolakuntza lanetan ere Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzua dago. Bakarren batek ostiraletan materiala eraman ezin badu, harekin harremanetan jarri eta nola eman zehaztuko dute. Horretarako, 648 070 710 telefonora hots egin edo anitzartean@sakana-mank.eus e-posta helbidera idatzi behar da.

DUELA 25 URTE...



Lorenzo Ondarraren kontzertua

Bakaikuko elizan 70 urte zuen harmoniuma organo elektriko bategatik ordezkatu zuten urte hasieran. Musika tresnagatik 1.404.000 pezeta (8.438,21 euro) ordaindu zituzten. Koruan jarritako organo elektriko berria musutzeko Lorenzo Ondarra organo jole eta konposatzaile bakaikuarrak kontzertua eskaini zuen ilbeltzean. Aurreko hilabetean Etxarri Aranazko abesbatzak Ondarraren gabon kantekin kontzertua eskainia zuen Iruñean.

"Egoera larriari kalean erantzutea dagokigu"

MANEX INSAUSTI OLASAGARREN ETA TASIO MECHAN FERNANDEZ GKS-KO KIDEAK Gazte Koordinadora Sozialistak manifestazioa deitu du Iruñean, larunbatean, 18:00etan. "Enpresari eta agintarien erasoaldiari kalean erantzuteko aukera da"

SAKANA

Deitu duen manifestazioarekin Gazte Koordinadora Sozialistak krisi testuinguruan langileriaren bizi baldintzen okertzearen arduradunak kalean seinatu nahi ditu: enpresari handiak eta agintariak.

Egoera aztertuta, ondorioak?

Krisi egoera bizitzen ari gara. Ez die berdin eragiten gizarteko hainbat klaseri. Batetik, langileria eta langileok geroz eta pobreagoak gara. Bestetik, enpresari eta agintariak geroz eta hobe bizi dira. Batez ere, enpresariak. Azkeneko datuek erakutsi dute haien irabaziak %21 igotzea lortu duten bitartean langileen irabaziak 7 aldiz gutxiago handitu direla. Mundu mailako krisi testuinguru batean gaudela esaten dute: pandemia, inflazio egoera, Ukrainako gerra... Beraien interesen alde egiten duen bide orri bat proposatzen dute. **Egoerak zer norabide hartuko du?** Pandemia eta gerra garaian jartzen ari diren baldintzak atzera bueltarik ez duten neurriak dira. Denak aditzera ematen du geroz eta okerrago biziko garela. Orokorrean, krisiaren izenean, langileon bizi baldintzen okertzea ematen ari da. Hori argi eduki behar dugu. Gainera, zerbitzu publikoen desegitea gertatzen ari da. Hau guztia okerrera doa. Bitartean burgesia handiak haien poltsikoak betetzen jarraitzen du inoizko irabazi altuenekin.

Horren aurrean, zer? Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara joan behar dugu. Gazteok izanen gara gure egoera hobetzeko aukera dugun bakar-rak. Eta, gainera, beharra dugunak. Ekonomia egoeraren eta enpresari horien geroz eta irabazi handiagoen aurrean, enpresariak seinatu behar ditugu. Baita agintariak ere, gure egoera geroz eta latzagoaren errudun baitira. Haien helburua ez da



Manex eta Tasio.

"GAZTEOK IZANEN GARA GURE EGOERA HOBETZEKO AUKERA DUGUN BAKARRAK. ETA BEHARRA DUGUNOK"

gure bizi baldintzak hobetzea. Hitz potoloak erabiltzen dituzte, espainiar estatuko gobernu progresistena den honek erabiltzen dituenak: oraingo krisi testuinguruan langileriaren bizi baldintzak defendatzeko gizarte ezkutu bat dagoela... Baina etxegabeteek segitzen dute, beraiek esan arren ez zirela emanen; ematen dituzten laguntzarako sarbidea geroz eta zailagoa da; gasolinaren prezio altuen aurrean zegoen laguntza kendu dute... Beraiek esaten digute haiengan sinisteko, langile klaseak hainbeste ez sufritzeko. Hori da gaur egun agintean dagoen sozialdemokraziaren lelo orokorra. Baina errealitateak eta datuek erakusten dute ez dela horrela. Errealitatean egiten dutena erabat alderantzizkoa da: gerra inperialista baten aurrean Ukrainian, beraiek armak ematen

dituzte eta gerra elikatzen dute; gerrak eragindako energia prezioen gorakadaren aurrean, harekin irabazi historikoak dituzten energia enpresen (Iberdrola, Repsol...) irabaziei ez diete mugarik jartzen; langileriaren antolakuntzaren aurrean, pandemiak argi ikusi zenez, aterabide autoritarioak proposatzen dituzte: geroz eta polizia gehiago, poliziaren baldintzak hobetu, haien jubilazio adina jaitsi, arlo militarera bideratutako aurrekontuak onartu...

Zergatik joan beharko litzateke manifestaziora?

Enpresari handiek eta agintariak gure bizitzak erasotzen dituzte. Gainera, horri aurre egiteko ditugun bitartekoak mugatu eta desagerrarazi nahi dituzte. Esate baterako, zigor kodearen gogortzea. Elikagaiak eskuratzea geroz eta zailagoa den momentuan, lapurreta txikien zigorrak gogortu dituzte; sistemaren zaindariak diren poliziak indartu dituzte. Kontziente izan behar gara miseriako egoera dugula. Egoeraren larritasunaren aurrean kalean erantzutea dagokigu. Larunbatean hori egiteko aukera paregabea dugu.



Lizarragako zeharbidea. ARTXIBOA

7,86 kilometro zeharbide ditugu

Herrietatik edo ondotik pasatzen diren errepideak dira. Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak dira zeharbideak, eta beraz mantentzea eta konponketa. Batzuetan herriekin arazoak sortzen dira

SAKANA
Zeharbide izena hartzen dute hiri lurzoruan barna edo horren ondotik pasatzen diren errepide tarteez, haietako bazter batean gutxienez herriko eraikuntzak badaude. Herri barrutik pasatzen diren zeharbideetan sareak berri eta zorua berritzeko lanak egin ondoren, jabetza udalen eskura pasa da. Azken kasuetako bat Arruazu da.

Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeari jarraituz, foru administrazioak Nafarroako Zeharbideen Inbentarioa osatu du. Hartan 308 herrietan dauden 441 zeharbide zerrendatu dituzte, guztien artean 217,46 km-ko luzera dutenak. Sakanari dagokionez, 15 herritan 24 zeharbide daude, 7,86 km-ko luzera dutenak (Nafarroako %4,87, % 5,44 eta %3,61 hurrenez hurren).

Sakanari dagokionez, zeharbide gehienak Tokiko errepide sarekoak dira, 6 km zehazki. Haietako gehienak ibarra ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen NA-2410 errepidekoak dira. Gainontzeko 1,86 km Foru Komunitateko Intereseko errepideei dagokie, bestela esanda, Lezaundik eta Zudairetik etortzen diren errepideak dira. Zeharbide km gehien duen Sakanako herria Olatzagutia da 1,63 (%20,74). Gertu du Etxarri Aranatz 1,59 km-rekin (%20,23). Ondoren heldu dira Irurtzun 1,4 km (%17,81) eta Altsasu 0,93 (%11,83).

6 KM ZEHARBIDE TOKIKO ERREPIDE SAREKOAK DIRA, 1,86 FORU KOMUNITATEKO INTERESEKOAK

Gorabeherak
Zerrendan ez da **Uharte Arakil** agertzen. Izan ere, herri gunetik Zerradoa auzora eta autobiaiko irteerantz doan errepidea ere zeharbidea da. Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuak errepidea 2012an deskatalogatu zuen. Horrek ez du esan nahi udalarena denik, ezta zeharbide bat bezala hartzen dutenik ere". Gaineratu duenez, "Errepide zati horren jabetza, printzipioz, gobernuarena da. Udalari ez diote inolako hitzarmen proposamenik ez ezer egin". Horregatik, "kale den edo zeharbidea ote den, norena den jakin nahian gabiltza, ezin argituz". Udalak gobernuarekin bileraren bat izan du, baina iritzi kontrajarriak dituzte momentuz. Uharte Arakilgo Udalaren aspaldiko asmoa da Geltoki eta Zerradoa kalee-

Nafarroako Gobernuaren zeharbideak

Herria	Errepidea	Hasiera Km puntua	Bukaera Km puntua	Luzera (km)
Errotz	NA-7010	20,04	20,21	0,17
Izurdiaga	NA-7010	20,81	21,00	0,19
	NA-7010	21,79	21,85	0,06
Irurtzun	NA-2409	19,87	20,64	0,77
	NA-2410	0,00	0,12	0,12
	NA-7010	22,38	22,89	0,51
Etxarren	NA-2410	2,36	2,54	0,18
Hiriberri Arakil	NA-2410	6,42	6,76	0,34
Ihabar	NA-2410	8,24	8,59	0,35
Arbizu	NA-2410	18,66	19,46	0,80
Lizarragabengoa	NA-7520	7,86	7,96	0,10
Lizarraga	NA-120	34,07	34,43	0,36
	Etxarri Aranatz	NA-120	38,00	39,05
	NA-2410	21,41	21,95	0,54
	Bakaiku	NA-2410	24,89	25,56
Iturmendi	NA-8504	0,12	0,69	0,57
Urdiain	NA-2410	27,83	28,17	0,34
Altsasu	NA-2410	30,13	30,59	0,46
	NA-7184	0,43	0,48	0,05
	NA-7184	0,64	0,78	0,14
	NA-8505	0,00	0,28	0,28
Olatzagutia	NA-7184	38,25	38,70	0,45
	NA-2410	32,90	33,03	0,13
	NA-2410	33,24	34,29	1,05
Guztira				7,86

tako azpiegiturak hobetzea eta "oinezkoendako arriskua kentzeko" espaloiak egitea.

Zeharbidea **Arruazuren** esku gelditu ondoren, deskatalogatutako errepide zaharrarekin eta zubiaren jabetza onartzea kosta zitzaion gobernuari

Altsasun, Beheko bentako bidegurutzetik Gartzia Ximenez kaleko lehen zeharbide goraturainoko tartea zeharbidea da, Nafarroako Gobernuarena. Altsasuko Udalak kaleko sareak eta zorua berri zituenean, euri

urak biltzeko hodiak ere berri zituena, eta sekzio handiagoak jarri. Gobernuak ez du lan hori egin eta ekaitz handiak daudenean, euri urak tren galeku eta ibai gaineko zubiaren ondoko erregistro tapak altxatu eta tokiz mugitzen ditu, zulo borobilak agerian utziz, eta, ondorioz, ibilgailuendako arrisku egoerak sortuz.

Olatzagutiko kiroldegi ondoan, bi zeharbideren arteko bidegurutzean, gobernuak errotonda bat egitea aurreikusita du.



"Beharrezkoa da egoitza herrian egotea inklusioa ikusgarri izateko"

JOSUNE AZPIROZ IMAZ BIAK BAT ELKARTEKO KIDEA

Aurretik zituzten proiektuez aparte, egitekoen artean okupazio zentro baten proiektua ontzea dute helburu aurten

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Biak Bat elkarteak 2011n sortu zuten Altsasun. Funtzio aniztasuna duten pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzen lan egiten du. Eskarmentu handia dute animaliek lagundutako esku hartzeak egiten, hortik onurak ateratzen direlako. Elkarte altsasuarreko kideak ilusioz lan egiten ari dira haien egoitza berriaren egokitzapen lanetan. Aurki despeditu eta mustuko dituzte.

Hamar urte bete zenituztenean, Sakana Sariko aipamen berezia jaso zenuten. Hori azaroaren erdialdean izan zen. Abenduaren 10ean uholdea. Egun gutxitan pozetik negarrera pasa zineten.

Hamargarrena guretako urteurren berezia zen. Pandemiaren ondoren herritarrek emandako saria jaso genuen, guretako oso garrantzitsua. Baina egun gutxitara izan genuen oso egoera latza. Oso une konplikatu izan zen.

Uholdearekin Isasia industrialdean egokituta zenuten pabiloia hondatu eta animalia batzuk hil zitzaizkizuen.

Emozionalki suntsituta gelditu ginen. Egia da materiala erosi dezakezula, edo marrazteko behar den guztia. Baina animaliak ere bertan galtzea... Pabiloira sartu ahal izan ginenera arte bizitako momentu horiek ez ditugu ahazten. Urte bat pasa da, distantzia gehiagorekin begiratzen duzu,

baina galdutako guztiagatik oraindik doluan gaude.

Ordutik nola moldatu zarete?

Izan genuen momentu bat zeinetan ikusi genuen beharrezkoa zela bakoitzak bere prozesua egitea. Lanean jarraitu ala ez, erabakitze momentua izan genuen: ordura arte egindako lana bukatutzat eman edo jarraitu. Herritarrek eta inguruko pertsonak laguntza handia eta animo pila eman zizkiguten. Azkenean, aurrera jarraitzea erabaki genuen. Azkenean, familia eta pertsona askok gure terapien onurak jasotzen dituzte. Altsasuko Udalak berehala erantzun zuen eta gazte guneko espazio bat utzi zigun gure ekintzekin aurrera jarraitzeko.

Harez geroztik han egon zarete lanean?

Salbatzea lortu genuena hara eramanez izan genuen eta han terapiekin jarraitu genuen. Ilbeldetik garila bukaera arte egon ginen han, ludoteka espazio hartara lekualdatu behar baitzuten. Zentro berria izan gabe atera ginen handik. Herrian egotea nahi genuen, berezitasun zehatz batzuekin. Maiatzean jakin genuen

**ERABAKITZEKO UNEA
IZAN GENUEN:
ORDURA ARTEKO
LANA BUKATUTZAT
EMAN EDO JARRAITU**

gazte gunea utzi beharko genuela, eta hain denbora gutxirekin, bi hilabetetan ezin izan genuen leku berri bat aurkitu. Udan opatu genuen espazio berria, baina erreforma egin beharra zegoen, espazioa ez baitzen irisgarria. Zentroa eta gure ekintza guztiak irisgarriak izatea nahi dugu. Erreforma batean sartu ginen. Lanak noiz hasten diren badakizu, baina ez noiz bukatzen diren. Gorabehera askoren ondoren agorritaz geroztik espazioa egokitzen ari gara.

Bitartean, terapia saioak gelditu?

Bai, gelditu behar izan genituen. Esku hartzeak gure diru sarrerara dira. Zerbait egin genuen kanpoan hainbat entitatearekin, baina gauza gutxi. Obrarekin buru-belarri sartu ginen, eta, orain, berriro martxa hartzeko gogoz.

Herrian bai, baina non dago Biak Bat elkartearen egoitza berria?

Altsasuko hilerri ondoan dago, garai batean elizarena zen Xabier zentroa zenaren zati bat hartzen du. Oso espazio polita eta irisgarria da. Isasia industrialdean geundenean oso erraza zen egoitzara iristea eta aparkatzea. Familiendako erraztasuna zen. Gazte gunean geundela, ikusten genuen beharrezkoa zela jendeak gure ekintzak eta erabiltzaileak, familiak, haur eta gazteak ikustea. Ez gaude ohituta Sakanan, edo Altsasun behintzat, aniztasuna ikusten. Jendeak ez daki zehazki zer egiten dugun, nahiz

eta lanean 12 urte eraman. Horregatik, beharrezkoa ikusten genuen egoitza herrian bertan egotea, inklusioa, irisgarritasuna ikusgarri izateko.

Internet bidezko diru bilteta hasi zenuten abenduan.

Obra egiteko denbora gutxi izan genuen, eta momentuan zaila zen dirulaguntzetara aurkeztea. Gurea bezalako elkarte batendako ez dago erreformak eta guneak irisgarriak egiteko laguntzarik. Irisgarria dela esaten dizute, baina ez dizute errazten. Gu ez gara erakunde publiko bat, ez gara bizilagunen elkarte; irabazi asmorik gabeko elkarte gara eta lan guztia egiteko ez dugu dirulaguntza publikorik, ez pribaturik. Aurreko urtean behar bezala ezin izan dugunez lan egin, diru sarrera handirik ez dugu izan eta, gainera, erreformari ekin genion. Beraz, diru bilteta egitea erabaki genuen. 2.000 euro lortzeko erronka jarri dugu eta ia erdia lortu dugu dagoeneko. Diru hori obra egiteko behar dugu. Gutxi gorabehera 60.000 euro dira, dirulaguntzarik gabe. Zentro berriarekin ilusioa dugu, baina, batez ere, diru horren beharra dugu gure lana egiten jarraitzeko, eta zerbitzu gehiago eman nahi ditugu egoitza berrian. Herritar eta entitateei dei egiten diegu ekarpenak egiteko.

Noiz egin daiteke ekarpena? Noiz arte?

www.migranodearena.org webgunean sortu dugu erronka, eta han bertan egin daiteke diru ekarpena. Segurua da, txartelaren edo Paypal bidez ordaindu daiteke, eta ekarpena egiten duenak errenta aitopenean %80ko hobaria izanen du. Otsailaren 13ra arte egin daiteke ekarpena. Jendeak ezin badu dirua eman, elkarbanatu dezala lotura. Kontu korrontearen zenbakia ez dugu inon jarri, baina hara zuzenean dohaintza egin dezake. Horretarako, guri hots egin eta emanen diogu zenbakia.

Noiz mustuko duzue elkartearen egoitza berria?

Uste dugu otsailean izanen dela, beranduenez martxoan. Urte hauetan eta zentro zaharretik

JENDEAK EZ DAKI ZEHAZKI ZER EGITEN DUGUN, NAHIZ ETA HAMABI URTE LANEAN ERAMAN



Josune Azpiroz Imaz, Biak Bat elkartearen kidea, egoitza

dena ateratzen eta garbitzen, eta orain obran lagundu diguten pertsonari eskerrak emateko zerbait egin nahi dugu. Mustutze handia egin nahi dugu. Aurreko urte oso zaila izan zen, baina hemen gaude berriro ere, ilusioz, herriari gure ekarpena egiteko. **Uholdearen ondoren zuk esandako hitzak dira ondorengoak: "zirt edo zart egiteko garaia iritsi zaigu. Hemen probisonal geunden. Eta gure hasierako apustua egitea baloratu beharko dugu: Sakanan okupazio zentro bat egitea zen".**

Bai, hori beti izan dugu buruan. Aurrera jarraitzea erabaki eta gure azken apustua izan da, duela urte asko genuen ideia gauzatu nahi dugu. Nafarroako Gobernuak ere naturarekin eta animaliekin lotura duten halako zentro berritzaile ezohikoak nahi ditu. Aurten ezinezkoa izanen



a berrian. UTZITAKOA

da: zentroa bukatu behar dugu, okupazio zentroaren proiektua aurkeztu... Ez da hain erraza sortzea. Baina 2024rako egitea espero dugu, edo behintzat eguneko arreta daukan zentroa.

Zer da okupazio zentro bat?

Hainbat behar dituztenei zuzenduta daude. Batzuk aniztasun funtzionala duten pertsonendako dira, beste batzuk adimen aniztasuna dutenendako, adinduendako eguneko zentroak ere badaude. Pertsona eta familiei hainbat gaitasun lantzeko zerbitzua eskaintzen zaie. Okupazio zentro bereziaren helburua ez da pertsona horiei lan bat opatzea, baizik eta gaitasun batzuk lantzea; eguneroko ekintzak egiteko behar diren gaitasunak lantzea: autonomia, emozio ongizatea... Ordu horietan okupazio zentroan ikasten jarraitzea, beraiek dituzten

behar horietara egokitzen diren terapiak eta ekintzak eskaintzea. Askotan hemengo pertsonak Iruñera joan behar dute horretara hemen ez dagoelako halako okupazio zentrorik. Oraindik ez dugu zehaztu zer ekintza egingen diren, baina natura eta animaliekin lotuta dauden ekintzak izan dira. Ez da gauzak egitea eta sorraraztea, baizik eta beraiekin lotura duten ekintzak egitea. Baita beraien ekintzekin komunitatea laguntzea ere.

Ikasi hitza entzunda hezkuntza arautua datorkio askori burura.

2021A OSO ZAILA IZAN ZEN, BAINA HEMEN GAUDE BERRIRO, ILUSIOZ, HERRIARI EKARPENA EGITEKO

Hau bestelakoa izan da. Etengabe ikasten gaude. Batzuetan funtzio ezgaitasuna edo gizarte egoera zaila dutenak agian ez dituzte eguneroko ohitura horiek izaten: leku batera iritsi, hau, hura edo bestea egin. Beraien egoeratik gaitasun edo abiltzia horiek galdu dituzte. Horiek berriro ikasi behar dira, edo egokiak direnak berrikasi.

Onuradunak zentroan dauden pertsonak, familiak ere badira, ezta? Bai. Horri garrantzia eman nahi diogu, behar hori ikusten baitugu. Askotan premia dutenak ez dira soilik erabiltzaileak, haur, gazte edo helduak. Familiak ere behar batzuk ditu, eta horiek ere zentroan sartu nahi ditugu. Alde batetik, laguntza, aholkularitza, baina baita prestakuntza ere. Familiak, derri gorrez, prozesuan zehar ikasten

joan behar dira. Askotan prozesuan hainbat gai izaten dira: jarrera desegokiak, adin batera iristean nola jokatu jakitea... Laguntza hori ematea. Zentroa ez dela bakarrik erabiltzaileen dako izan, familiendako ere. Zalantzak dituztenean, hor izan dute lantalde bat prozesuan laguntzeko prest.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan 36.000 euroko partida dago zentrorako. Zertarako ematen du diru horrek?

Alde batetik, zentroa eta eguneko ekintzak mantentzeko, ma-

HEMENGOEK IRUÑERA JOAN BEHAR DUTE BERTAN EZ DAGOELAKO HALAKO OKUPAZIO ZENTRORIK

terialak eta beste. Eta, bestetik, profesionalak eta animaliak mantentzeko. Gu oso espezializatuta gaude gure lanean. Uste dut aurten okupazio zentroa izan denaren esperientzia pilotua egingen dugula, hura egiten dugunerako jakiteko benetan halako zentro batek hemen funtzionatzen duen edo ez; zein profil zehatzerako funtzionatzen duen edo ez... Oraindik guztia zertarako izan den ez dugu zehaztuta, baina, ziurrenik, ez da nahikoa izan. Azkenean, pertsonekin lan egiten dugunean baliabideak oso garrantzitsuak dira. Eta kasu honetan, animaliak daudenean, ere. Haien ongizatea ere garrantzitsua da. Poliki-poliki forma ematen joan gara. **Esperientzia pilotu hori egoitza zabaldu bezain laster hasiko litza-teke?**

Orain obra bukatu eta dena martxan jarri nahi dugu. Proiektu berriarekin dagoeneko hasi gara. Aurretik genituen programak martxan jartzen hasi gara ilbeltzean. Behin horiek martxan jarrita, proiektu berriei ekinen diegu, esaterako, okupazio zentrorarekin. Hainbat elkarterekin harremanetan jarri, gizarte zerbitzuak... Eta forma nola eman ikusi beharko dugu. Gauza berriak sortzen direnean hasierak ez dira errazak. Behar bat dago, ideia bat duzu, martxan jartzen duzu eta ondoren, agian, ez dago pertsonen erantzunik. Horregatik hori guztia nola egin aztertu behar dugu, jendeak benetan parte hartzeko. Baita profesionalak ere, zentroa ezagutzeko, konfiantza sortzeko. Sakanan dagoeneko profesional askok ezagutzen gaituzte, deribazio edo koordinazio hori ez da hain zaila izan. Guztiari ekiteko gogo biziz gaude.

Goiz izanen da jakiteko okupazio zentroak zenbat plaza, langile eta animalia izanen dituen, ezta?

Hori 2024rako jakinen dugu. Lehenengo, zentroa martxan jarri behar dugu. Nafarroako Gobernuak hura ikusi behar du. Ondoren, zentroa erregistratu behar da eta, azkenik, okupazio zentrotan proiektua onartu eta 2024ko aurrekontuetan sartu. Gure asmoa da aurten prozesu guztia egitea, 2021ean ez baike-nuen astirik izan hori guztia prestatzeko. Agian ez zen gure momentua ere. Urte berria hasi berritan hurrengo urtera begira ari gara dagoeneko.

Plataformak "egoera argitzen" ari dela esan du

Gabeziak daudenez, eskatu du kalitatezko osasun zerbitzuaren alde borrokan segitzeko

SAKANA

Berri onak eman zituzten Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformakoek asteazkenean, Altsasuko eremuan egon beharreko sei medikuak zeudelako. "Lan eskaintza publikoan lanpostua lortutako bat dago, epe luzerako hemen egon diren beste bi mediku ditugu ere. Haietako bat gaur (asteazkenean) hasi da lanean. Gainera, jubilatua dagoen bat sendagile altsasuar batek aurten MIR egonaldia bukatu arte ariko da lanean. Venezuelako sendagilea trebatzen ari da, Osasunbideko martxa hartzeko eta aldikakoa da bestea. Batek baja hartu behar du eta ordezkoa lortu beharko da". Hala ere, gabeziak ere salatu zituzten: "pediatarrik gabe jarraitzen dugu. Egoera ez da ona, kezagarria da. Bi erizainek segitzen dute behaketak egiten eta egoki jotzen duten tokira bidaltzen".

Plataformakoek esan zuten, "lortutakoak mugitu garelako lortu ditugu. Borrokak merezi du, borrokan segi behar da". Antzeko egoera dute Bortzirietan eta hango plataformarekin harremanetan segitzen dute. Jakinarazi zuten, Nafarroako plataforma Osasun Departamentuko arduradunekin bilduko da gaur. Aurreratu zuten, Nafarroako plataforma kexua agertuko da gobernuaren osasun aurrekontuan Lehen Arretarako beharrezko %25 beharrean %15 dagoelako. "Gainera, medikuek eskusibotasunarekin segitzearen alde egiten dute". Nafarroako plataformarekin bildu ondoren Sakanakoekin bilduko dira.

Bestalde, Etxarri Aranazko osasun eskualdeko pediatrik baxa hartu behar izan du eta Osasunbideak ez du haren ordezkorik jarri. Atzo dozena bat egun bete ziren pediatarrik gabe. Atzo bertan gaia aztertzeke bilera zegoen.



Jone Rubio Mazkiaran, June Bengoetxea Irigoien eta Haizea Ramirez de Alda.

"Borondate eta apustu kontua dela garbi dugu"

JONE, JUNE ETA HAIZEA ALTSASUN KULTURA EUSKARAZ AINGURA GURA Euskarazko kultur eskaintza handitzeko "borondate eta apustua" nahi dituzte udalean, horregatik sinadurak biltzen ari dira

ALTSASU

Herrian euskarazko kultur programazioarekin "gehiago gozatzea gustatuko" litzaiekeelako, hainbat altsasuarrek helburu hori duen ekimena sustatu dute: Altsasun kultura euskaraz aingura gura.

Nahi horregatik elkartu zarete?

June. Nahi eta beharrezkoa ikusten dugulako euskararen normalizaziorako.

Haizea. Euskararen erabilera sustatzeko beharrezkoa da aisia ere euskaraz egotea, hizkuntza esparru formaletik ateratzea. Altsasun aisiaren zati handi bat kulturak betetzen du, horregatik da garrantzitsua horretan eragitea.

Zein eskaera dituzue?

Ju. Udalarendako hiru eskaera dira. Batetik, kultur guneko haurrendako eskaintza %100 euskaraz izatea; Hizkuntza Eskubideen Protokoloan oinarrituta, helduei zuzendutakoaren %25 gutxienez euskaraz izatea. Berez, hori baino altuagoa izan beharko luke. Baina epe motzean bete daitekeen zerbait da. Azkenik, euskarazko emanaldien eskaintza handitzeko plangintza sortzeko konpromisoa hartzea.

Haurrendako %100 jartzea kanpoko emanaldi onei uko egitea izan daiteke.

H. Udalaren euskararen ordentzan oinarritu gara, eta eskaintza, oro har, euskaraz izan behar duela jartzen du. Gainera, Altsasun 16 urtez azpiko denak

euskaraz dakite edo ulertzeko gai dira. Beharrezkoa da haien aisia euskaraz izatea.

Ju. Galdu dezakete ikuskizun zoragarriren bat, bai. Baina haurrek ez badute euskaraz gozatzen, hizkuntza ez dute barneratzen egunerokotasunean erabiltzeko. Halakoetara ez baditugu bideratzen, haur eta helduak, euskalduntze maila jaisten da. Gozatze horretan dago gakoa.

"ASKOTAN BESTE LEKU BATZUETARA JOTZEN DUGU EUSKARAZKO EDUKIAK KONTSUMITZEKO"

Jone. Askotan euskara eskola edo ikastolako hizkuntza izatera mugatzen da. Haur askoren gurasoek ez dakite euskara.

H. Euskarazko kalitatezko produktu asko dago.

Euskarazko kultur kontsumorako publikoa dago?

Jo. Bai. Baina aukerak nahiko murrizak dira. Askotan beste leku batzuetara jotzen dugu euskarazko eduki horiek kontsumitzeko.

H. Landu beharreko kontua da: eskaintzarik ez badago, jendea ez du ohiturarik hartzen. Ohiturarik ez badago aitzakia hori erabiltzen da ez eskaintzeko. Garrantzitsua da euskarazko kultur eskaintza kontsumo produktu huts gisa ez erabiltzea, zerbitzu bat eskaintzea da.

Ju. Heziketa prozesu bat da, ez da gauetik goizera lortzen den zerbait. Eta hautua. Udalak sinisten badu benetan herri euskaldun bat garelako, inbertsio eta aurrerapauso batzuk eman behar ditu.

H. Ongi egon daiteke eskaintzarekin batera sustapen kanpainak eskaintzea.

Sinadurak biltzen hasiak zarete, ezta?

Ju. Paperak Kukuerra elkarrean, Portuko okindegian, rokodromoan, kiroldegian, ML dendan, Arkatz liburu dendan daude. Edonork sinadurak biltzeko paperak nahi baditu gurekin harremanetan jar dadila. Eguberrikan plazan jarri ginen. Jendeari kostatzen zaio.

H. Horregatik erabaki genuen onlineko aukera jartzea (<https://labur.eus/LQ7LA>). Gehiago animatzen ari da. Lotura jasotzen duen jendea sinatzera eta inguruan zabaltzera gonbidatzen dugu. Oraindik ere denbora gehiago egonera gara sinadurak biltzen. Uste dugu gure inguruan jende erdaldun asko egon daitekeela gure eskaerekin ados.

Sinadurekin, zer?

Jo. Udaletxean aurkeztuko ditugu. Gure helburua ere bada Euskal Herrian zer eskaintza dagoen udalari ikustaraztea. Gero eta artista gehiagok euskaraz lan egiteko hautua egin dute.

JAIOTZAK

• **Maddi eta Iزارo Azpiroz Goikoetxea**, ilbeltzaren 12an Lizarragabangoan

EZKONTZAK

• **Juan Bautista Urtasun Perez eta Maite Ruiz Zestau**, ilbeltzaren 20an Urdiainen

HERIOTZAK

• **Fermin Zornoza Satrustegi**, ilbeltzaren 18an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

FUTBOL PREFERENTEA

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Burladés - Altsasu	3-1
Etxarri Aranatz - Rotxapea	1-2
Aibarés - Lagun Artea	3-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Universidad de Navarra	38
8 Altsasu	25
17 Etxarri Aranatz	10
18 Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 28, LARUNBATA

16:00 Aibarés - Altsasu (San Lorenzo)

16:00 Amigó - Lagun Artea (Amigó)

16:15 Etxarri - Aurrera (San Donato)

Altsasuk Oibarren jokatu du

Burladésen kontrako partida ahaztu eta Aibarés du aurkari Altsasuk. Partida zaila da, Oibarko taldea sailkapenean hirugarren postuan baitago.

Etxarrik Aurrera hartuko du

Rotxapearen kontra azken minutuan joan zitzaion partida Etxarri. Aurreraren kontra buelta eman nahi dio egoerari.

Lagun Arteak arerio zaila

Aibarésen kontra ongi jokatu zuten lakuntzarrek, baina ezinezkoa izan zen. Amigó bigarrena dute orain aurkari.

EMAKUME PREFERENTEA

12. JARDUNALDIKO EMAITZA

Marcilla - Altsasu	4-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1 Idoya	32
7 Altsasu	13

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 29, IGANDEA

18:00 Berriozar - Altsasu (Berriozar)

Altsasu arerio zuzenaren kontra

Marcillaren jipoiaren ondoren, Berriozar arerio zuzenaren kontra ariko da Altsasu.

FUTBOL ERREGIONALA

15. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu B - San Ignacio	1-3
-------------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	39
12 Altsasu B	12

HURRENGO JARDUNALDIA

ILBELTZAK 28, LARUNBATA

18:15 Gazte Berriak - Altsasu B (Antsoain)

Altsasu Gazte Berriak kontra

Azken jardunaldia ahaztuta, Altsasu hirugarren den Gazte Berriak du aurkari.

Bargagain ezin hobea Nafarroako Txapelketan

TAEKWONDOA Asteburuan jokatu Nafarroako Taekwondo Txapelketan Bargagain klub sakandarrak banaka sei domina lortu zituen, hiru txapeldun nafar tartean, eta emakumezkoetan klub onena eta gizonezkoetan hirugarrena izan zen

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Asteburuan senior mailako Nafarroako Taekwondo Txapelketa jokatu zen. Altsasuko Bargagain Taekwondo klubak, Gerardo Montero Rivera irakasleak zuzenduta, beste behin sekulako lana egin zuen eta sariz beteta itzuli ziren etxera.

Nafarroako hiru txapeldun

Emaitzei begiratuta, banaka sei domina lortu zituzten Bargagaingo borrokalariek, horietako hiru urrezkoak. Hau da, Nafarroako hiru txapeldun ditugu. Erkuden Moreno Muñoz Nafarroako txapelduna izan zen emakumezkoen 46 kilo azpiko pisuan, Irati Iri-



Nafarroako Txapelketan parte hartu zuten taekwondistak, lortutako sariekin. BARGAGAIN

goien Crespo emakumezkoen senior mailako 62 eta 67 kiloko pisuan, eta Mohamed Essobai gizonezkoen senior mailako 54 kilo azpikoan.

Horretaz gain, Nafarroako bi txapeldunorde ditugu. Maite Gurutzarri emakumezkoen 53 eta 57 kiloen arteko txapelketan bigarren sailkatu zen, eta Aaron Rodriguez gizonezkoen 63 eta 68 kiloen arteko txapelketan ere bigarrena izan zen. Bukatzeko, Saray Agudo Gurbindo hirugarren sailkatu zen emakumezkoen 57 eta 62 kiloen arteko pisuan.

Bargagain, onena

Banakako dominak garrantziatsuak dira, baina taldekako trofeoek zapore berezia dute, guztienak direlako. Bargagainek egindako lan bikainaren isla, Nafarroako Taekwondo Txapelketan Bargagain izan zen talderik onena emakumezkoetan, eta hirugarren talde onena gizonezkoetan, Mendialdea eta Castejonon atzetik. 2023 denboraldia, beraz, bikain hasi da klub sakandarrarendako. Halakoek lanean jarraitzeko indarra ematen dute, zalantzarik gabe.

Ez dutela etsiko diote Ezkurdiak eta Martijak

PILOTA Play-offetara sailkatzea maldaz gora jarri zaie sakandarrei, baina Bilbon egoerari buelta eman nahi diote. Euren arerioak, Altuna eta Tolosa, ez dira sakandarrez fio, "bikote arriskutsua" dela uste baitute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako hamargarren jardunaldia dago jokoan eta txanponaren bi aldean daude pilotari sakandarrak. Zabaletak eta Elordik lider jarraitzen dute (8 puntu). Azkeneko jardunaldian sailkapenean azkenaurrekoak diren Ezkurdiak eta Martija (2 puntu) izan zituzten aurkari, eta Zabaletak eta Elordi ordezkatzuz zuten Irribarriak 11 eta 22 hartu zituzten mendean, biko sakandarraren egoera izugarri korapilatuz.


Zabaletak eta osatuta bueltan den Elordik Peio Etxeberria eta Rezusta (5 puntu) dituzte aurka-



Martija eta Ezkurdi, Bizkaia frontoiko material aukeraketan. MIREYA LOPEZ

ri larunbatean Labriten. Nahiz eta faboritoak liderrak izan, azken hauek sailkapenean gora egin nahi dute eta partida lehia-tua espero da.

Ezkurdiak eta Martijak egoerari buelta emateko aurkari latzak dituzte, sailkapenean hirugarren diren Altuna eta Tolosa (6 puntu). Bilbon jokatu dute partida, larunbatean. Sakandarrek play-offetara sailkatzea zaila dute, baina argi dute ez dutela etsiko. "Argi dugu irabazi beharra dugula, bai ala bai. Zintzoki, ez dakit zer gertatzen zaigun. Hitz egiten dugu, ongi entrenatzen dugu eta kantzara egoerari buelta emateko asmoz ateratzen gara, baina gero... ez gara bikote sendoa izaten ari. Lanean jarraitu, ez dago beste biderik. Ea behingoz gure benetako jokoa erakusteko gai garen" azaldu zuen Ezkurdiak. Joan zen urtean Tolosarekin ere antzeko egoeran ibili ziren, baina play-offetara sailkatu ziren. "Falta dugun konfiantza berreskuratu beharra dugu" azpimarratu zuen. Martijak onartu zuenez, "zaila dago, baina bukaerara arte borrokatuko dugu".



Iñigo Galarza eta Alvaro Gutierrez, Nafarroako Automobilismo galan euren saria jasotzen. AVM

Iñigo Galarza kopilotua, rallyetan kantatzen jarraitzeko gogoz

AUTOMOBILISMOA Iturmendiara 2021ean hasi zen kopilotu, eta bere bigarren denboraldian Nafarroako Asfaltoko Rallyen II. Klaseko kopilotu onenaren saria jaso du, Alvaro Gutierrez bere pilotuak pilotu onenaren saria jaso duen bezala

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI Ilbeltzaren 14an Olaztiko Kultur Etxeak Nafarroako Automobilismo Federazioak Sakana Motorsporten laguntzarekin antolatutako gala hartu zuen. Bertan, omenaldiez gain, 2022 denboraldiko Nafarroako automobilismo txapelketa ezberdinen sariak banatu ziren. Hiru sari Sakanan geratu ziren: Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketan monoplazen hirugarren saria Iker Palacios Andueza lakuntzarrarendako izan zen (BCR B52); Nafarroako Abiadura Txapelketako eskuderia onenaren saria Arakil Motorsportek jaso zuen; eta Asfaltoko Rallyen Nafarroako Txapelketako II. Klaseko kopilotu onenaren saria Iñigo Galarza Arregi kopilotu iturmendiarrarendako izan zen, bere pilotuak, Alvaro Gutierrez iruindarrak (Saxo VTS), kategoria horretako

pilotu onenaren saria jaso zuen bitartean.

Iñigo Galarza Arregik 27 urte ditu eta Iturmendiko Santanekua etxekoa da. Sakana Group kooperatiban lan egiten du baina automobilismoa da bere zaletasuna. "Betidanik autoak eta motorrak gustatu izan zaizkit. Iturmendin zaletasun handia dago. Txikitatik lagunekin eta aitarekin Urbasako Igoerara joaten ginen".

Kopilotua da. Bere etxeko ize-na, Santanekua, sarritan agertzen da Alvaro Gutierrez pilotuaren autoan apaingarri (Saxo VTS),

"HASIERAN GUZTIA IDAZTEN NUEN; EGUN, SINBOLOAK ERABILTZEN DITUT" IÑIGO GALARZA

bestelako publizitate, binilo eta apaingarriekin batera. "Zergatik kopilotu? Pilotua izateko diru asko behar da eta, gainera, mekanikaz ez dakit. Niretako automobilismoan lehietzea ametsa zen, eta baliabideen aldetik kopilotu izatea errazagoa da. Azkenean koaderno eta arkatzak erosi eta apunteak hartzea da" dio irribarrez. Kopilotu izatea hori baino askoz gehiago dela ongi daki Galarzak, lan eta ardua handia baitute.

Lorpen ederra

Nafarroako 2022ko Asfaltoko Rallyen II. Klaseko kopilotu onenaren saria jaso zuen Galarzak Olaztin, lorpen handia, 2021ean kopilotu hasi zela kontuan hartuta. "Iruñeko lagun batek, aita Lizarragakoa duen Andoni Berastegik proposatu zidan. Rallyetako auto bat eros-

tektan zegoela, eta ea bere kopilotua izango nintzen. Eta animatu nintzen. Pentsatu nuen: ez badut orain egiten, ez dut inoiz egingo".

2021ean bi probetan parte hartu zuten Galarzak eta Berastegik, Urdazubiko Kontrabandisten Rallysprintean eta Lesakako Rallysprintean, biak Nafarroako egutegikoak. Andoni Berastegi pilotua aurretik mendi igoeratan aritua zen (igoeratan pilotuak bakarrik doaz, kopiloturik gabe), baina rallyetan lehenengoz aritu zen. Galarzarendako lehen lasterketak ziren, alde guztiatara. Biek batera ikasi zuten. "Rallyetako notak hartzen ikastea batzuk notak hartzeko ikastaroetara joaten dira, baina ni ez. Andoni eta biak elkarrekin hasi ginen rallyetarako prestatzen. Lasterketa bat jokatu baino aste bat lehenago eremua ezagutzera joaten gara eta notak hartzen ditugu. Pilotuak esaten duena apuntatzen dut nik" dio.

2021, matxura eta istripua

Andoni Berastegi pilotuarekin mustu zen Iñigo Galarza kopilotua, Urdazubiko Kontrabandisten Rallysprintean. "Niretako Nafarroako Rallyrik zailena da. Luzeena, bihurtune askokoa eta zuloz betetakoa. Lehenengo mangan autoa apurtu zitzaigun. Eta kitto Kontrabandisten Rallysprinta. Hilabete eta erdira Lesakako Rallyra joan ginen eta han istripua izan genuen. Bi itzulipurdi eman genituen autoarekin. Ez genuen kalterik izan. 2021ean hor bukatu zen gurea" oroitzen du Galarzak. Gainera, pandemia zela, ez ziren lasterketa asko egon. Berastegik ez zuela autoa martxan jarriko eta ez zela rallyetan ariko esan zion Galarzari. "2022 urtean Malerreka eskuderiako Alvaro Gutierrez pilotuak deitu zidan, 2022ko Nafarroako Asfalto Gainerako Rally Txapelketa egin nahi zuela eta ea bere kopilotua izan nahi ote nuen. Esperientzia handia du, 19 urtetatik da pilotua. Nik aurretik bistaz ezagutzen nuen, erreferentzia nuen, animatu eta baietz esan nion".

BIGARREN URTEAN KOPILOTU ONENAREN SARIA LORTZEA HANDIA DA" IÑIGO GALARZA

Bere mailako kopiloturik onena

Galarza oso gustura ibili da aurten Alvaro Gutierrezekin. "Harreman ona dugu eta gehiena berarekin ikasi dut". 2022 urteko martxoan Hondarribiko Bidasoa Rallyan parte hartu zuten, "elkar ezagutzeko, probatzeko eta notak nola hartu behar zituzten adosteko", eta ondoren, apirilean, Olaztiko Rallysprintean lehiatu ziren, Nafarroako Txapelketarako baliagarria zen proban, eta "nahiko ongi" sailkatu ziren. "Sakandarra izanda bertako ibilbidea ezagutzeak laguntzen du. Nik Olaztiko Rallysprinteko ibilbidea banekien. Alvarok lehen aldiz parte hartu zuen, eta nik ia gehiena buruz kantatzen nion. Ongi ibili ginen".

Alvaro Gutierrezek hobekuntza egin zion Saxo VTS-ari. Abiadura-kaxa aldatu zuen, kaxa hobeagoa jarritz. "Nabaritu zen. Maiatzean Urdazubira joan ginen eta Kontrabandisten Rallysprintean ongi ibili ginen, gustura. Nafarroako Txapelketako sailkapen orokorrean, scratchean hirugarren sailkatu ginen, eta gure kategorian, II. Klasean, lehenengoak".

Uztaillean jokaturako Irurtzun-Arakilgo Rallysprinta iritsi zen ondoren, baina zortea ez zuten alde izan, lehenengo mangan haizagailuak apurtuta gelditu behar izan zirelako, "eta lehen mangan gelditzen bazara, ez duzu ezer puntuatzen". Lesakako Rallysprinta iritsi zen segituan, eta bertan ongi aritu ziren: Nafarroako Txapelketako sailkapen orokorrean hirugarrenak eta euren klasean lehenak. Hurrena irailean jokaturako Fiteroko Rallya zen, "baina proba hasi baino ordu erdi lehenago, rutometroa hartzeraz nioala, Alvarok esan zidan pilotu arropa ahaztu zuela etxean. Lagun batek ekarri zion arropa, baina rallya hasita zegoenez, ez genuen puntuatu. Halako despistek ere, gertatzen dira" dio irribarrez.

Balorazio ona

Euren klasean lider izaten jarraitzen zuten, baina Fiteron puntuatu gabe Nafarroako Asfalto Gainerako Rally Txapelketa absolutua hankaz gora jarri zitzaizen. Hurrengo proba, azaroan, Esteribar Rallysprinta zen. "Lehenengo mangan ongi ateratu ginen. Lurra bustita zegoen, baina hala ere gure kategoriako lehenak ginen. Bigarren mangan

gogotsu atera ginen, gehiegi agian, eta kolpe tontoa izan genuen. Suspentsioak apurtu zitzaizkigun. Nafarroako Txapelketa absolutuagatik borrokatzeko aukerak despeditu zitzaizkigun, bosgarrenak ginelako. Baina gure klasean lidergoari eutsi genion". Azkeneko proba azaro bukaeran jokotutako Malerrekako Rallysprinta izan zen. Gustura aritu ziren denboraldiko azken proban. Horrela, Nafarroako Asfaltoko Rally Txapelketa absolutuan bosgarren sailkatu ziren eta II. Klaseko irabazleak izan ziren. "Eta horregatik jaso genuen saria Olaztin. Nafarroako Txapelketa osoa egin dudan lehen urtea izateko, urte polita izan da, pozik nago" aitortu du Galarzak.

Gutierrezekin jarraituko du

Aurki hasiko den 2023 denboraldian atzera ere Alvaro Gutierrezen kopilotu izaten jarraituko du Iñigo Galarzak, gustura. Denboraldi erdialdean hasiko omen dira, Gutierrezek autoko motorra desmuntatu eta Bartzelonara eramane behar duelako errebisatzera. "Helburua hasten garenetik ahalik eta hobekien aritzea da. Bestalde, asmoa dugu agian Asturias edo Kantabria aldera joateko, beste lasterketa batzuk probatzeko". Lasterketa berrietan aritzea erronka polita da. "Kopilotuendako hobe da. Pilotuak ez badute non dauden ezagutzen, kasu egiten dizute, baina eurek ezagutzen duten toki batean sarritan kopilotua kantatzen doa, baina berdin zaie (kar, kar...). Pilotu baten kopilotu izateak ez du kentzen beste pilotuekin aritzeko aukera. "Joan zen urtean

Iñigo Arbizu iturmendiarrarekin Zaragoza ondoko lur gaineko rally batean aritu nintzen. Hori bai, aurretik Alvarori galdegion eta berak esan zidan ez zegoela inolako arazorik".

Akatsak

Lasterketetako notak gordetzen ditu Iñigo Galarzak. Agian zerbaitek aldatu daiteke urte batetik bestera, baina normalean lasterketetan aldaketa gutxi izaten dira. "Agian zuloak handiagoak dira, edo ibilbidearen zatitxo bat aldatzen da, eta moldaketak egiten dizkiogu aurreko notei". Kopilotu batzuk tableta erabiltzen hasi dira, baina gehienek koaderno eta arkatzeekin jarraitzen dutela dio Galarzak.

Noizbait notetan akatsen bat egin duen galdetuta, irribarre egiten du. "Zubirin jo genuenean apuntatuta nuen "DERECHA 8 (hori azkar da), OJO FRENANDO IZQUIERDA 4", eta horren ordez izan beharko zen "EN DERECHA 8 OJO FRENANDO PARA IZQUIERDA 4". Berdina dirudi, baina ez da. Dena den, errepidean gertatzen diren gauzak dira, eta hemen onerako eta txarrerako gaude".

Urbasako Igoera amets

Pilotua izan nahiko ote lukeen galdetuta noizbait Urbasako Igoeran parte hartzea gustatuko litzaiokeela aitortzen du. "Noizbait egun horretarako auto bat alokatu nahiko nuke, arantza hori kentzeko. 500 euro inguru lirateke, edo hortik gora. Kopilotuak kopilotu gisa federatzen gara automobilismo federazioan (180 euro urtean), eta pilotu ari-



Alvaro Gutierrez eta Iñigo Galarza, Olaztin Rallysprintean. AVM



Iñigo Galarza, autora sartzeko prest. UTZITAKOA

tzeko pilotu gisa federatu beharko nintzateke (350 euro, honek ere kopilotuendako balio du) eta eskuderia batekin atera beharko nuke lizentzia. Eta Urbasan aritzeko fidantza bat ordaindu beharko nuke. Lehen esan dudana, automobilismoa kirol garestia da. Auto bat erosi beharko nukeela esaten didate askok, baina nik erantzuten diet nahia-godo dudala Liburundan koadernoak

erosi (kar, kar...). Dena den, nahiko nuke noizbait Urbasako Igoeran aritzea" espero du Galarzak.

Sakanan zaletasun handia dagoela uste du Galarzak, batez ere Urbasako Igoeraren eraginez. "Urbasak jende mordoak erakartzen du, urte osoan autoei inolako kasurik egiten ez dien jendea barne. Iturmendiko haur eta gazteak urduri egoten dira Ur-

basako Igoera baino aste bat lehenago" dio.

Etxekoek nahiko ongi hartu zuten Galarzaren zaletasuna. "Afaltzen geundela esan nien gurasoei, eta gogoan dut amak esan zidala lanera egunero joatea ere arriskutsua dela. Gurasoak lasterketa guztietara datoz, ez dute huts egiten. Baita lagunak ere. Eta gustuko dut. Familiak eta lagunak ikusteak ilusioa sortzen dit. Non kokatu behar diren baldin badakit, saiatzen naiz agurtzen, baina gehienetan ezinezkoa da".

Pilotu gehienek lasterketak grabatzen dituzte. Gustuko dute gero ikustea, bai eurenak eta baita besteek ere. "Nik telebista ez dut gustuko. Gure bideoak ikusten ditut, eta Youtubeko eta bestelako lasterketak eta rallyak. Aurki Montecarloko Rallya hasiko da, eta Kataluniakoa eta bestelakoak ere jarraitzen ditut. Ildo honetan, Asturiasen eta Cantabriaren zaletasun asko dago eta lasterketa asko izaten dira. Kuadrillarekin urteak daramatzagu FITOKO igoera ikustera joaten". Ivan Bajo kopilotu asturiarra oso gustuko du Galarzak, Bajok eta Manuel Mora bere ohiko pilotuak egiten dituzten lasterketak. "Oso gustuko ditut, euren bideo guztiak goitik behera eza-gutzen ditut".

Olaztin automobilismoaren galan ongi pasa zuen Galarzak. "Halako gala batean egoten nintzen lehenengo aldia zen, eta jende asko zegoen. Ez nuen pentsa horrenbeste izango zenik. Ea beste noizbait saritu gisa errepikatzen dugun".

Notak kantatu

IÑIGO GALARZA ARREGI KOPILOTUA

Rallyetan kopilotuak ibilbideko notak edo oharak kantatzen dizkio pilotuari, eta ohar horiei kasu eginez gidatzen du pilotuak. Entonazioarekin garrantzia duten oharak nabarmentzen dituzte. Kopilotuek erabiltzen dituzten nota edo sinboloek hizkuntza berezia osatzen dute. Galarzak aipatu duenez, gaztelera erabiltzen dute, "Izquierda eta Derecha norabideko hitzengatik. Notetan I eta D jartzen dugu, norabidea. Euskaraz eskuin eta ezker dira, letra berdina, E, eta nahasmena litzateke. Nik ezagutzen ditudan euskal pilotu eta

kopilotuek gaztelera egiten dute, bereziki horregatik".

Letretatik sinboloetara

Bihurgune bat datorrela nola kantatuko lukeen galdetuta, "IZQUIERDA 6, adibidez. Pilotu bakoitzak bere modura egiten du zenbakien graduazioa. Andoni Berastegik 1-etik (itxia) 6ra (zabala, topera) egiten zuen bihurguneen deskribapena, eta egungo pilotuak, Alvaro Gutierrezek, 1-etik 9-ra egiten du graduazioa. Bihurguneak gehiago zehazten ditu. Pilotu bakoitzak gauzak definitzeko bere modua du, eta kopilotuok euren moduari egokitu behar gara" argi du. Hasieran notak idatziz hartzen zituen. "Lehenengo lasterketetan dena idazten nuen, zuzenean irakurri eta



kantatzeko, baina orain nota asko sinboloekin idazten ditut. Ziurtasuna izan arte guztia idazten nuen, sinboloak interpretatu beharrean. Adibide bat jarriko dut. O letrari gainean barra (/) jarrita, horrek OJO esan nahi du, eta ondoan FRN jartzeak FRENANDO esan nahi du. Hasieran

OJO FRENANDO idazten nuen, guztia, eta orain sinboloa eta FRN. Denborarekin ikasten zoaz" azaldu du. Bihurgune oso itxiak direnak, frenatzekoak, errepikatzea gustatzen zaio, oharra indartzeko.

Rallyetako ibilbideak zailak izaten dira. Gradu ezberdinetako bihurgune asko, maldak, ezpondak, zuloak... eta notak hartzerakoan guztia jaso behar da. "Eta denbora ere kontrolatua eman beharko dugu". Jakina, datorrenaren berri lehenago esan behar zaio pilotuari, "bestela bihurgunea jaten duzu (kar, kar...). Zenbat lehenago? Pilotuaren abiaduraren arabera. Oso azkar badoa, azkarrago, eta alderantziz. Entrenamenduetan metroak ere apuntatzen ditugu notetan" dio Galarzak.



Xotako neskek, Canterari irabazi eta gero, txapeldunak direla ospatzen. XOTA

Xotako neskek Nafarroako txapeldunak, oe, oe, oe...

ARETO FUTBOLA Emakumezkoen Haurren Mailako Areto Futbol Txapelketa despeditzeko jardunaldi baten faltan, Irurtzongo Xota taldea da txapeldun handia. Bi urtez zuloan egon ondoren, burua altxatu, euren sinistu eta lan gogorraren saria da

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Emakumezkoen Haurren Mailako Areto Futbol Txapelketa irabazi zuen asteburuan Irurtzongo Xota taldeak, partida estu eta zirraragarriari Canterari 1 eta 2 irabazi eta gero. Liga despeditzeko partida baten faltan lortu zuten txapeldun izatea, eta igandean Irurtzongo Atakondoan 11:00etan Arbonaren kontra jokatu duten partida festa ederra izango da.

Oso pozik dago entrenatzailea, Juanpe Arregi Sarasa. Bere garaian Xotako jokalaririk izandakoak -Xotako presidente Tatono Arregiren eta Osasuna Magna Xotaren entrenatzaile Imanol Arregiren anaia da- duela hiru denboraldi hartu zuen taldea entrenatzeko ardura, bertan jokatzeko duen Nahia Arregi alabak eskatuta. "Makina bat talde entrenatu izan ditut, mutilenak eta neskenak,

Ohorezko mailakoak, zilarrezko mailakoak, jubenilak... eta uztekotan nengoen, baina alaba eta bere lagunak etorri zitzaizkidan eta euren ilusioa ikusita, ezin izan nien ezetz esan. Gainera, badakizu, gustuko tokian aldarrik ez" dio Juanpe Arregik irribarrez.

Lezio garrantzitsua

Hasierak ez ziren errazak izan. "Ez zuten inoiz areto futboleko jokatu, eta zeretik hasi ginen. Lehendabiziko bi urteak oso gogorak izan ziren. Lehen denboraldian partida guztiak galdu

"AURREKO BI URTEAK GOGORRAK IZAN ZIREN. PARTIDA BAKARRA IRABAZI GENUEN" JUANPE ARREGI

zizuten, eta sekulako jipoiak jasota. Eta iaz soilik partida bat irabazi zuten, Championsa irabazi balute bezala ospatu zutena" oroitzen du. Baina garrantzitsua neskek zuten gogoaren zen. "Partida galduta ere, astelehenean denak agertzen ziren entrenatzaera, irribarrez".

Juanpek ezin du bere poztasuna ezkutatu. "Entrenatzaile gisa, niretako sekulakoa izan da, bereziki taldeak izan duen garapena ikustea eta euren egunerokotasuna jarraitzea. Egoera gogorrenetan ez zuten inoiz etsi, lanean eta borrokan gogor jarraitu zuten, konstantziaz, eta euren buruan sinistu zuten. Bizitarako lezio garrantzitsua ikasi dute, kirolaz gainera euren egunerokotasunerako oso ongi etorriko zaiena. Kirolean hasi berri den talde bat entrenatzea eta balio horiek guztiak trans-

mititzea lortzea niretako oso handia da" dio.

Lanaren ordaina

Zer gertatu da urte honetan, azkeneko bi denboralditan ia dena galdu eta aurten partidarik galdu gabe jardunaldi baten faltan txapeldunak izateko? "Ba azkenean orain arte egindako lanak ordaina izan duela. Egindako guztiak merezi izan duela. Erori ondoren altxatu, eta egiten duzunean sinistu; horrela guztia helduko da. Aurten taldeak bilakaera izan du; lehiatzen ikasi dute, eta akatsak zuzentzen. Cantera eta Orvina taldeak erreferente nagusiak dira, talde onenak. Dena irabazten ziguten. Aurten, Canterari lehendabiziko aldiz 4 eta 1 irabazi genien taldekide batek esan zuen: baina ikusi duzue zer egin dugun? Joan zen urtean Canterak hamasei gol sartu zizkigun. Hamasei. Eta jokalaririk berberak ziren. Nik uste dut inflexio puntua izan zela eta bere burua edozer gauza egiteko gai sentitu zutela".

Txapeldunak izateaz gain, Nahia Arregi ligako goleatzaile nagusia da, eta Xotako jokalaririk bat Nafarroako selekzioan aritu da. "Atezainari bere maila baino gorago dagoen kadete mailan aritzeko deitu zioten. Denboraldi ederra izaten ari da".

Juanpek oso argi du Xota txapeldun izateak "egin duten lanari eta jarraikortasunari saria" izan dela. Igandean ligako azken partida jokatu dute, etxean, Atakondoan, Arbona taldearen kontra. Ligako txapeldunak direla ospatzeko egun bikaina. "Disfrutatzeke esan diet. Gozatu dezatela. Lorpen eder hau etxean ospatzea bikaina izango da. Eta ondoren joan daitezela bazkaltera eta festa egin dezatela" dio entrenatzaileak, pozik. Giroa ziurtatuta dago.

Kopa eta Espainiako Txapelketa

Liga despeditu ondoren Kopari ekingo dio Xotak, eta ekainean oraindik zehaztu ez den tokian jokatu den Espainiako Txapelketara joango dira, "merezi dutelako, guztiz. Beharrezko ate guztiak joko ditut bitartekoak

"EZ ZUTEN INOIZ ETSI. SINISTU ZUTEN, ETA TXAPELKETA HAU LAN HORREN ORDAINA DA" JUANPE ARREGI

Xota 2022/2023

Haurren mailako Xota taldearen aurtengo plantilla

Jokalaririk

Uxia Agirre Lamoso, Leire Amoztegi Barroso, Nahia Arregi Ormaetxea, Lierni Gelbentzu Goñi, Iradi Gorostiaga Iribarren, Leire Lacunza Gallego, Nahia Lamarca Zudaire, Noa Lazkoz Etxarri, Maria Lazkoz Fuertes, Aya Mimouni El Mekaoui, Lorea Osinaga Davila eta Maitane Sanguesa Zubieta.

Entrenatzailea

Juanpe Arregi Sarasa.

Egoitza

Irurtzun, Atakondo.

lortzeko. Esperientziaz disfrutatu dezatela".

Haurren mailako garaipen honek beste berri on bat dakar, emakumezkoen senior mailako Xotak harrobi bikaina duela. "neskek 13 urte pasatxo dituzte, eta garrantzitsua da kirola egiten jarraitzeko aukera dutela. Kirolean segi eta aipatu ditugun balio garrantzitsu horiek barneratzen jarrai dezatela.

Emakumeek, zailago

Juanpe Arregik hamaika talde entrenatu ditu, gizonezkoenak eta emakumezkoenak "eta argi eta garbi esan dezaket bizitzan, eta baita kirolean ere, orokorrean emakumezkoek zailago dutela. Hiru alaba dauzkat. Emakumeek gehiago borrokatzea tokatzen zaie, gogorrago lan egitea".

Hurrengo denboraldian taldea entrenatzen jarraituko duen galduta irribarre egiten du. "Taldea honi ezetz esatea zaila da, baina ikusiko dugu. Orain gozatzeko ari naiz. Zein polita den euren poztasun aurpegiak ikustea. Nola hasi ziren eta izan duten eboluzioa ikusteak ez du preziorik. Eta gehiago neska hauen kasuan, gehienak ezagutzen baititut, alabaren kuadrillakoak direlako. Alaba ere tartean egoteak bereziago egiten du guztia. Argi esan diet: hemendik aurrera etortzen dena, etor dadila, baina Nafarroako txapeldunak gara eta hori ez digu inork kenduko".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 27

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea.

17:30ean, Intxostiapuntan.

ZIORDIA Ipuin musikatua.

Perli eta Koxkolo bikotearen *Bidaia liuragarria* aniztasunaren, berdintasunaren eta naturaren aldeko ipuin musikatua, euskaraz.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Etixeraten eta Sareren azken ostirala presoen aldeko elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Elkarretaratzea.

Etixeraten eta Sareren azken ostirala presoen aldeko elkarretaratzea.
20:00eta, San Martin kalea, 7 (Asteraingo bideguratzea).

ARBIZU Elkarretaratzea.

Etixeraten eta Sareren azken ostirala presoen aldeko elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Elkarretaratzea.

Etixeraten eta Sareren azken ostirala

presoen aldeko elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

OLAZTI Kontzertuak.

Deserrite talde sakandarraren eta Guda Dantza taldearen diskoen aurkezpen kontzertua.
23:00etatik aurrera, Maisuenea gaztetxean.

LARUNBATA 28

ALTSASU Festa.

La Encina Extremadurako kultur elkartearen ohiturazko txerriaren hilketaren eguna, La Encina elkartearen.
09:00 Ogi mamiak jatea.
11:00 Txerriaren zatikatzea.
12:00 Txerrikiak egin.
14:30 Txerrikiaren dastaketa eta bazkaria.

OLATZAGUTIA Scape room.

Gozamenez programaren Zentzumenen plazerra ihes gela.
10:30ean, 12:00etan eta 13:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Mus txapelketa.

Felix Urra Mariñelarena mus txapelketa.
16:30ean, Iratxo elkartearen.

IRURTZUN Erakusketa mustutzea.

Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezank Hirea Gaitunk Geurea* pintura erakusketa.
18:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Gazte agenda.

Ping pong 3x3 txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Al descubierto gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 27 19:00
Igandea 29 19:30

Avatar: El sentido del agua gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 2 19:00
Ostirala 3 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

La vida sin ti zineforum filmaren emanaldia
Igandea 29 19:00

El frío que quema zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 2 19:00

ALTSASU Antzerkia.

Txalo producciones konpainiaren *Un Oscar para Oscar* antzezlaren emanaldia, gaztelaniaz.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Kontzertuak.

Dentera talde altsasuarraren eta Hail Noise taldearen kontzertua.
22:30ean, gaztetxean.

IGANDEA 29

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Galitoo konpainiaren *The Show Moscón* txotxongilo ikuskizunaren emanaldia, gaztelaniaz.
17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ ZinUEMA.

Goazen 9.0 telesailaren denboraldi berriaren aurrestrainaldia. ZinUEMA euskarazko ikus-entzunezkoak sustatzeko UEMAren ekimena.
17:30ean, kultur etxean.

IRURTZUN Antzerkia.

¡Mua! Kukumix antzerki talde amateurren antzezlaren emanaldia, gaztelaniaz.
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.



IRURTZUN Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezank Hirea Gaitunk Geurea* pintura erakusketa.

Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.

ALTSASU Adela Sánchez artistaren *Oraina eta atzera begirakoa* erakusketa.
Otsailaren 1era arte. Iru Bide jatetxean.



ALTSASU Malgaxe emakumearen indarra argazki erakusketa.

Otsailaren 12ra arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

ALTSASU Hitzaldia.

Conoce el mercado energético: Consumo de luz y gas en los hogares / Ezagutu energiaren merkatua: Argindarra eta gasaren kontsumoa etxetan hitzaldia. Nafarroako Gobernuak antolatuta, Cederna Garalur eta Sakanako Garapen Agentziaren laguntzarekin.
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Herri batzarra.

Altsasuko EHBilduren herri batzarra: Herri proiektua marrazten eta etorkizunerako eronkak.
18:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ASTEAZKENA 1

IRURTZUN Irakurle taldea.

ZORION AGURRAK



Beñat Gomez Maiz
Zorionak zure 16.
urtebetetzean. Musu
handi bat.



Alberto Ladronen *Film zaharren kluba* liburuari buruz hitz egingo du euskarazko irakurle taldeak.
19:00etan, Pikuxarren.

OSTEGUNA 2

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformaren osasun publikoaren aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, osasun etxearen aurrean.

OSTIRALA 3

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Visible, In-visible Oihane Andueza Imirizalduren libururen aurkezpena.
19:00etan, udaletzeko batzar aretoan.

Bazkide zozketa

URTARRILEKO SARIAK

1. SARIA

Pedro M. Lopetegi Bacaicoa (Lakuntza)

2. eta 3. SARIAK

Olga Berastegi Lizarraga (Arbizu)
Santi Agirre Galartza (Iturmendi)
Sonia Lizarraga Ondarra (Bakaiku)



Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Fermin Zornoza Satrustegui

Beti egongo zara gurekin, aita
Zauden tokian zaudela beti 'Nabarriko'

Zure familia

OROIGARRIA



Vicente Zelaia Agirrebengoa

V. urteurrena

Erreza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa
ordea zu ahaztea. Beti gure bihotzetan

Maite zaitugu

Etxekoak
Altsasu

OROIGARRIA

Jose Mari Martinez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla Nati Aiestaran Goñi

Gukin betiko yonko zarie

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

OROIGARRIA



Arantxa Urzelai Andueza

I. urteurrena

Gure ondotik joan zinen,
baina betirako izango zaitugu gure bihotzetan

Haren aldeko meza, igande honetan, hilak 29,
eguerdiko 12:30ean Lakuntzako Salbatore elizan ospatuko da

Etxekoak



OROIGARRIA



Jose Mari Nuñez Fernandez

I. urteurrena

Duela urte bat joan zinen
baina ez gaituzu inoiz utzi

Beti gure bihotzetan

Familia



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatuzko bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

HIGIEZINAK

ALOKAGAI

Etxe bat alokatzen da Sakanan: 683 162 018.

LEHIAKETAK

Mozorrotutako balkoien lehiaketa Olaztin: Herri ihotea sustatu asmoz, Udalak inauteri gaiarekin balkoi apainketa lehiaketa antolatuta du. Parte hartzaileen balkoiak otsailaren

16tik 25era apainduta mantendu beharko dira. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek otsailaren 15eko 24:00ak arteko epea du izena emateko; udaletxean izena emanez edo olaztin-koihoteak@gmail.com emailera idatziz. 150, 100 eta 50 euroko hiru sari banatuko dira. Bestalde, balkoi guztien argazkiak egingo dira eta hauek udalaren eta Inauteri Elkartearen jabetza izango dute.

OHARRA

Altsasuko Elkartasun azokarako bilketa solidarioa: Erabiltzen ez dituzun (arropa, jostailu, maindire eta abar) eta egoera onean dauden gauzak Altsasuko Erkuden kaleko 8. zenbakian dagoen lokalera (Sociedad deportiva zena) ekarri ostiraletan, 10:00etaik 13:00etara. Bildutakoa-

rekin apirilaren 23an Elkartasun Azoka egingo da. Informazio gehiago anitzartean@sakana-mank.eus emailera idatzi edo 648 070 710 telefonora deitu.

Crowdfunding Kanpaina Josefina Arregui Klinika berritzeko: Josefina Arregui Klinikaren Lagunen Elkarteak diru bilketa hasi du Eguneko Zentroa berritzeko eta handitzeko, helburua 75.000 euro lortzea da. Diru ekarpenak www.josefinaarregui.com web orriaren bidez egin daitezke, txartel, Bizum edo kontu-zenbaki baten bidez ekarpenak egin edo Laboral Kutxan eta La Caixa banketxeetan ireki diren kontuetan dirua sartuz. Kanpainak 2023ko otsailaren 15era arte iraungo du. Informazio gehiago klinikaren web orrian edo 948 563 850 telefonora deituz.

iragarki@guaxe.eus

www.iragarkilaburak.eus



Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaxe.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Sinfonía Navarra orkestra 'Turrillas Sinfonikoa' kontzertuan. UTZITAKOIA

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Sinfonía Navarra orkestraren lehenengo kontzertua 2021eko azaroan izan zen, Cascanten, eta bertan mustu zuten haien lehenengo proiektua: *Turrillas Sinfonikoa*. Otsailaren 4an, larunbata, 18:00etan, nafar konpositorearen lanean oinarritutako hamabosgarren kontzertua emanen du orkestrak Altsasuko Iortia kultur gunean. Kontzertu berezia izanen da, izan ere, Santa Ageda bezpera izanik, Altsasuko Erraldoietako kinto eta kinta izanen dira emanaldian gonbidatuak, baita herriko dantzariak ere. Turrillasen lana oholtzaratzeko kontzertu bat baino gehiago da.

Orkestra oso berria da Sinfonía Navarra. "Joaquín Kinito Huerta tronpeta-jotzaileak eta Alvaro Iborra klarineta-jotzaileak sortu zuten Sinfonía Navarra orkestra, eta beste musikariak pixkat bat engainatu gintuzten proiektu honetan parte hartzeko". Eneko Azparren orkestrako tronboi-jotzailea eta proiektuan parte hartu duen musikaria da. *Turrillas Sinfonikoa* izan da Sinfonía Navarraren lehenengo proiektua eta duela gutxi Joaquín Gaztambide Tuterako konpositorearen musikan oinarritutako bigarren ikuskizuna aurkeztu dute.

Nafarroako konpositoreak oso garrantzitsuak dira orkestraren proiektuan: "Hori da ideia. Nafarroan badaude izenez ezagutzen

Herri musikaren maisua, oholtzan

Sinfonía Navarra orkestrak Manuel Turrillas nafar konpositorearen lanean oinarritutako proiektua sortu du. Helburua haren musika zabaltzea da, baita herrietako tokiko eragileekin parte hartzea ere. Otsailaren 4an Altsasun egonen da

ditugun konpositore asko, baina beren musika ez dugu ezagutzen". *Turrillas Sinfonikoa* kontzertuarekin "konpositore ezagun honen musika eszenatokietara eramatea zen ideia". Orkestraren beste helburuetako bat jotzen duten herrietan tokiko erakundeekin eta elkarrekin harremanetan jartzea da. Altsasuren kasuan, erraldoiak eta dantzariak ariko dira otsailaren 4ko kontzertuan.

Interesgarria

Manuel Turrillas Nafarroako konpositore garrantzitsu eta ezagunetarikoa bat da, gehienbat

**OTSAILAREN 4AN
SINFONÍA NAVARRA
ORKESTRAK
KONTZERTUA EMANEN
DU ALTSASUN**

herri musikan egin zuen lanagatik. Azparrenek azaldu duenez, haren musika ezagunena "sanferminetan ezaguna dena" da, "batez ere, peñetako ereserkiak". "Orduan, norbaitek pentsa dezake kontzertua pixka bat festa, patxanga eta horrelakoa izango dela, eta horretatik badago, baina ez da hori bakarrik". "Pixka bat denetarik" egin zuen nafar konpositoreak, gehien bat herri musikan: zortzikoak, jotak eta abar. "Baita manboak, boleroak eta era askotako musika egin zuen". Guztira, mila abesti inguru sortu zituen. Turrillasen musika "alde guztietatik" interesgarria da: "Nik uste kalitate handiko kontzertua dela, ez dakit ongi dagoen nik esatea baina...".

Proiektuaren helburuetako bat, beraz, Turrillasen lana oholtzara eramatea denez, "mu-

sika hori moldatu behar izan dugu bai orkestrarako bai abesbatzarako". Musikan zer da moldaketa bat? "Musika tresna batzuetarako pentsatuta dagoen partitura bat beste musika tresna batzuetara pasatzea". Turrillasen musika batez ere haize tresnekin jotzeko sortua dagoenez, orkestra "txiki" batean jotzeko moldatu behar izan zuten. "Gure orkestran haize musika tresnez gain, hari musika tresnak eta perkusioa ere badago".

Abestien moldaketak hiru pertsonen artean egin dituzte:

**ALTSASUKO
ERRALDOIEK ETA
DANTZARIEK
EMANALDIAN PARTE
HARTUKO DUTE**

Jesus Garisoain, La Pamplo-nesa Iruñeko bandako zuzendari ordea, "ezaguna da sanferminetan La Pamplonesak jotzen dituen dianak zuzentzen dituelako. Oso moldatzaile bikaina da; oso moldaketa politak egin ditu". Mikel Abete Tafallako musikaria, "oso konposatzaile eta moldatzaile aparta da eta moldaketa dotoreak egin ditu". Hirugarren moldatzailea Azparren bera izan da.

Musika moldaketak egiteko hiru aukera daudela azaldu du musikariak. Lehenengoa abestia bere baitan uztea da, musika berdina egitea: "Instrumentu batetik beste baterako pasa. Gero ez da hain erraza musika tresna bakoitzaren ezaugarrietara moldatu behar delako". Bestetik, muturreko aukera dago, librea egin, "musika horretan oinarritutako zerbait egin, musika erabat aldatu". Hirugarren aukera erdibideko "zerbait" egitea da, "melodia mantendu baina akonpainamendua aldatu".

Eta Zer egin dute Sinfonía Navarra orkestrako hiru moldatzaileek? "Egin ditugun moldaketetan hiru aukerak daude. Nik uste abesti guztiak ezagunak direla, baina batzuk ezagunagoak egingo dira". Kontzertuari "aberastasuna" ematen dio: "Abesti guztiak berdin-berdinak izango balira, monotonia gera zitekeen eta muturrera eramanda ere agian pintsuegia egiten zen". Oreka bat mantentzen da.

Sinfonía Navarra

Hogei musikari inguruk osatzen dute Sinfonía Navarra orkestra. Hari tresnen taldean biolinak, biolak, kontrabaxuak eta harpa daude; haize tresnetan tronboia, tronpeta, tronpa, klarineta, oboea, fagota eta zeharkako txirula, eta bi perkusionista daude ere. Zuzendaria Javier Echarri da eta Luisa Martín tronpa-jotzaileak eta musikologoak esatari lanak egiten ditu eta abestien tartean Turrillasen musika eta bizitza azaltzen du. "Saiatzen gara toki bakoitzeko kultur eragileekin elkartzen: dantzariak, erraldoiak". Orkestrarekin batera Olitense Abesbatza aritzen da ere. Altsasuko kinto eta kinta erraldoiak, dantzariak, musikariak eta abeslariak... eta tarteko ere irudiak agertzen dira. Ikuskizun bat da.



2022ko Maria Markotegi sariko eta Nanoipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia. ARTXIBOA

Orri txuriaren aurrean jartzeko garaia

Sakanako ikasleen euskarazko sormena bultzatzea xede duen Maria Markotegi sarietako eta euskara ikasleendako Nanopuin lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu Sakanako Mankomunitateak. Apirilaren 5era arte aurkez daitezke lanak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak Maria Markotegi sariko 2023. urteko edizioa martxan jarri du. Narrazio laburra, poesia, komikia eta booktubea sailak daude eta Sakanako ikasleek edo ibarreko ikastetxetan ikasten duten haurrek gazteek parte har dezakete. Euskara ikasleendako eta Mintzakideendako Nanoipuin lehiaketaren edizio berria jarri du martxan ere. Lanak aurkezteko epea apirilaren 5ean bukatuko da eta ikastetxeek ikasleen izenean lanak aurkez ditzakete.

Maria Markotegi sarietan lau kategoria daude, ikasleen mailaren arabera: A kategoria LHko hirugarren eta laugarren ikasleak, B kategoria bosgarren eta seigarren mailako ikasleak, C kategoria DBHko lehenengo eta bigarren ikasleak eta D kategoria DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleak.

Kategoriaren arabera lanek luzera desberdinak dituzte: A

kategoriakoek narrazio laburrean gutxienez orrialde bat eta gehienez lau orrialdeko lanak egin behar dituzte; poesian gutxienez hamar lerro eta gehienez 50, eta komikia gutxienez orrialde bat eta gehienez bi. B kategorian, narrazio laburrean, gutxienez bi orrialde eta gehienez bost orrialde; poesian gutxienez hogeituro lerro eta gehienez 50, eta komikian gutxienez orri bat eta gehienez hiru orrialde egin beharko dituzte.

C kategoriakoek booktube sailean parte har dezakete eta gutxienez 1,5 minutu eta gehienez bi minutuko liburu baten inguruko bideoa egin beharko dute. Narrazio laburrean DBHko lehenengo eta bigarren mailako gaz-

**LITERATUR
LEHIAKETAN LAU SAIL
DAUDE: NARRAZIOA,
POESIA, KOMIKIA ETA
BOOKTUBEA**

teek gutxienez hiru orrialde eta gehienez sei idatzi beharko dituzte, poesian gutxienez 30 lerro eta gehienez 80 eta gutxienez bi orrialde eta gehienez lau orrialdeko komikia egin beharko dute. Bukatzeko, D kategoriakoek narrazio laburrean lau eta zazpi orrialde arteko narrazio laburra, 40 eta 80 lerro arteko poesia lana eta bi eta bost orrialde arteko komikia egin beharko dituzte. Booktubean 1,5 minutu gutxienez eta hiru minutu gehienez irau beharko du bideoak.

Narrazio laburrak eta poemak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, 12 puntuko hizki tamainan. Komikiak zuri beltzean edo koloretan aurkeztuko dira, eta ez dira onartuko ordenagailuz egindakoak. Aholkatzen dute Din A3 tamainakoak egitea, testuak ongi ikusi ahal izateko. Lanak bakarkakoak izanen dira, booktubeak izan ezik, binaka egin baitaitezke, baina ez da derrigorrezkoa biak bideoan agertzea. Lanak *sakana-mank.eus*

webgunean aurkez daitezke, edo bestela, Sakanako Mankomunitateko Lakuntzako bulegoan. Lan guztiak goituzen batez izenpetuko dira eta antolakuntzak banatutako plikaren bidez datuak gutun azal batean sartuko dira. Booktubeak USB batean edo We-transfer bidez bidaliko dira *euskara1@sakana-mank.eus* helbidera.

Sarietara aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute eta guztira 28 zortzi banatuko dituzte ekitaldi publiko batean. Kategoriaren arabera Sakanako liburu denda batean erabiltzeko 50, 70, 90 edo 110 euroko txartelak banatuko dira.

Nanoipuinak

Euskalduntzen ari den Sakanako edozein pertsonak parte har dezake Nanoipuin lehiaketan,

baita Mintzakide programako parte hartzaileek ere. Hiru maila daude: A1 eta A2 mailletako ikasleak; B1 ikasleak eta B2 eta C1 mailletako ikasleak. Mintzakideak euskararen ezagutzaren pareko mailan parte hartuko dute.

Nanoipuin bakoitzak 150 hitz izango ditu gehienez eta egile bakoitzak nahi beste testu aurkez ditzake. Indarkeria, sexismoa, arrazakeria edo bestelako esku-bide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko. Lanak *sakana-mank.eus* webgunetik aurkeztuko dira eta azken eguna apirilaren 5ean izanen da. Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute eta maila bakoitzeko saridunek Sakanako liburu dendetan erabili ahal izateko 150 euroko txartela irabaziko dute.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Komiki artifiziala

Azken bolada honetan eztabaida sortu da "Adimen Artifizial" programen eta artearen inguruan. "AA" programak (adimen artifiziala horrela deituko diot testuan zehar. Toki gutxi daukat eta hitza luzeegia da, lagunok) gauza harrigarriak egiteko gai dira. Antzina programazio eta informatika arloetan egin zuten lan. Gaur egun ostea, "AA"-k izugarriko aurrerapenak egin ditu eta hainbat arlotan sartu du muturra. Egin ditzakeen mila gauzen artean, marrazten ikasi du. Ez baduzu sinesten, bilatu Google-en "Midjourney" edo "DALL-E 2", "AA" marrazkilari famatuena.

Gai honek kezka eta ardura sortu du artisten komunitatean. Makina bat arlo kreatiboetan lanean! Are gehiago, jendeak tresna berri hauek babesten ditu! Galdera etiko eta filosofiko asko planteatzen ditu honek. "Zer da artea?" galdera klasikoak "nor egongo da prest marrazki hau ordaintzeko?" galderaraino. Hala ere, goian esan bezala toki gutxi daukat, beraz, guri interesatzen zaigun galderan zentratuko gara: "AA"-k komiki bat idatzi eta marraztu dezake?

Erantzuna "ez" da. Ale, hurren arte... Bueno oraindik badaukat toki pittin bat, beraz utzi azaltzen. Erantzun motza "ez" bada ere, "AA" komiki bat idatzi eta marrazteko oso gai da, baina oso urrun dago lan zehatz eta garbi bat egitez. Edonork egin dezake komiki bat, ez da behar Moebius edo Alan Moore izatea komiki bat marraztu edota gidoia idazteko. Hau kontuan hartuta, "AA" kolore zirraragarriak erabiltzen ditu eta edozein estilora moldatu daiteke, baina ez doa haratago. Ez du irudiak konposatzeko xarmarik eta xehetasunak marrazten ez da batere trebea. Idazteko orduan, ordea, logikoki osatzen ditu esaldiak, baina berriro ere, idatzitakoak ez du xarmarik. Zentzurik badu ere, hutsik dauden arimarik gabeko istorioak kontaktzen

Batek daki etorkizunean "AA"-k maisulan moduko komiki bat sortuko ote duen. Ene ustez hori lortzetik urrun badago ere, "AA"-k ikasteko duen erraztasun eta bizkortasuna harrigarria da.

Ni tokirik gabe geratu naiz, agur lagun!

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Darse cuento eta *Kontu handiz* euskarazko bertsiorearen eta *Aitune, iluntasunaren beldur naiz* haurrendako liburuen ondoren, Oihane Andueza Imirizaldu lakuntzarrak *Visible, in-visible* nobela kaleratu du. Liburuaren azalean bere izena bakarrik agertzen den arren, talde lana eta elkarlana oso garrantzitsua izan direla esan du idazleak. Otsailaren 3an, ostirala, 19:00etan, liburuaren aurkezpena egingen dute Lakuntzako udaletxearen batzar aretoan eta Anduezarekin batera Victor Mesanza eleberriko irudi eta musikaren egilea eta Galder Orobengoa zuzentzaile eta prozesuaren lekuko izanen dira.

Haurrendako bi liburuen ondoren, eleberriarekin ausartu zara.

Nik uste ni berarekin ausartu baino bera niregana hurbildu dela, nolabait esateko. Ez da izan nik bilatutako zerbaiteko edo aurretik pentsatutako zerbaiteko. Aukera sortu zen eta funtzionatzen ez badu ez dudala ezer galtzen pentsatu nuen; ez banaiz nahi bezala gustura gelditzen, saiakera polita izan da. Baina saiakera amaierara iritsi da.

Nola iritsi zen zuregana?

Pertsona bat ezagutu nuen. Musika sortzen du eta lagun baten bitartez bere etxera musika entzuterako gonbidatu zidan. Han elkarrizketan geundela esan zidan aspalditik bere bizipenak edo istorioa idazteko gogoia zuela. Momentu horretan ez nuen ezer esan, baina etxera joan nintzenean pentsatu nuen nik zerbaiteko idatzi dudala eta ez nekien gai izango ginen eleberria aurrera ateratzeko, baina nire burua eskaini nuen. Berak harriera ona egin zion eta baietz esan zuen, prest zegoela; ez bada ateratzen ez da ateratzen eta ongi dago ere esan zidan. Lasaitasun horretatik abiatuta eta beti konfiantzatik. Horrek lagundu du, presio falta horrek bultzatu ninduen.

Errealitatea eta fikzioa nahasten dira?

Bai. Pertsona honek kontatu zizkidan bere bizitzako etapa, momentu edo egoera berezi eta xebreak eta berak emandako materialarekin eta nik sortutakoarekin atera da eleberria. Batzuentzat errealitate hori fikzioa ere izan daiteke, eta horrekin jokatzeko dugu; zer da errealitatea, zer ez da errealitatea, norentza-

"Eleberrian errealitatearekin eta fikzioarekin jolasten dugu"

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU IDAZLEA

Lakuntzarrak bere lehenengo eleberria kaleratu du: 'Visible, in-visible'. Pertsona baten bizipenak kontatzen ditu, askorendako fikzioa izan daitekeen errealitatea



Oihane Andueza Imirizaldu idazlearen 'Visible, in-visible' liburuarekin. UTZITAKOIA

ko da errealitatearen subjektibitatea.

Musika garrantzitsua da, ezta?

Eleberrian QR kode batzuk daude musika entzuterako eramateko zaituztenak.

Beraz, nobela bat baino gehiago bada.

Irudiak ere badaude. Pertsona horrek sortutako irudiak eleberraren bukaeran daude eta irakurtzen zoazen heinean irudi zehatz bat ikustera gonbidatzen dugu. Baina betiere nahi izanez gero. Osagarriak dira. Errealitatearekin jokatzeko dugu eta errealitatearen muga horretan gaude. Horregatik deitzen da *Visible, in-visible* hori ere. Zer ikusten dugun, zer ez dugun ikusten, zer sortzen dugun ikusten dugun horretan. Helburuetako bat da gure gauzak ikusteko, ulertzeko eta bizitzeko modua zabaltea. Orduan, helburu hori lortu asmoz irakurketaz gain beste arte batzuk gehitzen ditugu. Haien arteko osagarritasunean irakurlearen esperientzia zabalteko asmoz.

Nolakoa izan da sortze prozesua?

Noizbehinka elkarrizketak egiten genituen libreta batekin. Esan

"NOBELA NIREGANA HURBILDU DA; EZ DA IZAN NIK BILATUTAKO EDO PENTSATUTAKO ZERBAIT"

nion grabatuko niola eta ezetz esan zidan. Bera gauzak kontatzen joango zen eta nik bizitzen nuenaren arabera kontatzen joateko esan zidan. Joko hori ere dago, berak bizitu ditu gauza batzuk baina berak kontatutako bizipen horien jasotze lan horretan transformazioa dago ere. Transformazio hori ontzat hartuta. Kapitulu bat bukatzen nuenenean joaten nintzen eta gehiago kontatzen zidan. Koadernoan aurrean nuela gogoratzen nuena kontatzen nuen; nik jasotako gehi nik asmatutako potpourri antzeko bat izan da.

Protagonistak Vicente eta Victoria dira. Zer kontatzen du?

Batez ere ametsak. Batzuetan baditugu ametsak errealitate bezala bizitzen ditugunak. Esnatzen gara eta benetan bizi izan dugu pertsona horrekin nengoe-la eta nola da posible ametsa izatea? Baina batzuetan ere ametsak bizitzaren parte dira. Orduan, bi pertsonaia horiek guk, pertsona arruntek, ametsetan ditugun esperientzia sinesgaitza horiek lorik egin gabe dituzte. Zentzumenei dagokienez pertzepzio berezia dute.

Gogoetarako tartea dauka?

Zalantzarik gabe. Pertzepzioaren gaitasun hori zabaltea da helburuetako bat. Pertsona honek dituen bizipenak dira, nik ulertu ditudan bezala, ni baino aurreratutago dagoen pertsona batena. Bizi handiagoko duela. Guk ikusten dugu dena oinak lurrean ditugula, baina pertsona honek ikusten du txori batek bezala bista horretan. Berak gaitasun hori du, eta gaitasun zabal eta sakon hori ere islatzen saiatu gara. Ikusmen gaitasun hori ez daukagun pertsonaia hori helarazteko.

Aurkezpenarekin zurekin bi pertsona egongo dira. Nolakoa izango da?

Liburuari buruz hitz egin dudanean pluralean hitz egin dut. Egia da portadan nire izena bakarrik agertzen dela eta ordenagailuan idaztera ni jarri naizela, baina prozesu guztian zehar egon dira pertsonak zuzentzen, lekuko, iradokizunak islatzen... Modu pertsonalean egon dira. Aldaketa sakonak egin ditugu pertsona hauen ekarpenek esker. Aurkezpenarekin bakoitzak bere bizipena kontatuko du; zer suposatzen duen mota honetako prozesua. Jendearen ekarpena ere nahi dugu; oso irekia izango da. Horrek aberastasuna ematen dio aurkezpenari.

"Joko zaila dirudi, baina oso dibertigarria da"

Urtarrilaren 14an Magic The Gatering txapelketa antolatu zuten Altsasuko Gaztetxean, Altsasun geroz eta jokalaria eta zaletasun gehiago duen jokoa, Haitz Bujanda eta Gorka Alonso jokalariek eta txapelketaren antolatzaileek azaldu duten bezala

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer da Magic?

Karta joko bat da, duela 30 urte inguru sortutakoa. Kartak kolekzionatu daitezke. Arau pila bat daude, azaltzeko zaila da. Jendeak uste du oso zaila dela, baina oso entretenigarria da. Zaila da, baina bizikletan ibiltzea bezala; pixkanaka ikasten hasten zara eta behin martxa hartzen diozunean oso dibertigarria da.

2 Zer nolako kartak dira?

Jendearendako oso arraroak dira. Magic The Gatering deitzen da. Oinarrian edo istorioaren atzean bi azti daude. Izakiak ere agertzen dira eta sorginkerien bidez besteari bizitzak kendu behar dizkiezu. Laburbilduz hori da helburua. Mundu honen barruan nobelak eta guzti daude. Pertsonaia asko daude; istorio handia dago atzetik. Kartetan

agertzen diren pertsonaiak no-beletakoak dira. Guk egia esan ez ditugu irakurri, jokatu bakarrik egiten dugu.

3 Zer behar da jokatzeko? Kartak zuenak dira?

Formatu desberdinak daude. Bi nagusi daude: txapelketa batean parte hartzeko zure kartak behar dituzula eta bakoitzak bere 60 karta mazoa erabiltzen du, eta gero dago Gaztetxean egin genuena, dendetan saltzen dituzten karta sobreak. Formatu horretan ezin duzu aurretik jakin zer duzun. Bakoitzak hogeitaz bi zita ditu eta bukatzen zaizkizunean galdu duzu. Gaztetxeko txapelketan hiru partiden hoberenera jokatu genuen, hau da, ordu batean hiru partida jokatzeko ziren eta hoberena sailkatzen zen. Jokoa atera zenean ere apustu joko bat zen, baina gaur egun debekatuta dago.

4 Zergatik gaztetxean txapelketa bat antolatu?

Denbora asko daramagu honetara jokatzeko eta ez dugu inoiz hainbeste mugimendu ikusi. Hogeitaz bi pertsona gaude Whatsapp taldean. Duela laupabost urte inguru geunden. Azken urteetan boom egin du eta uda osoan zehar ia-ia egunero gelditzen ginen. Pentsatu genuen torneo bat egin behar genuela. Abenduan Intxostiapuntan beste txapelketa bat egin genuen eta nahiko jende agertu zen, orduan, pentsatu genuen gaztetxean mus txapelketak antolatzen badira, zergatik ez Magic txapelketa? Tolosako Gaiok irabazi zuen. Lagun bat, inork ezin izan zion irabazi. Donostiatik eta Iruñetik etorri zen jendea ere. Jendeak jokoa geroz eta gehiago ezagutuko du eta jokatzerara anima daiteke. Edozein dago gonbidatuta.



5 Bitxia da bideojokoen garaian gazteak karta jokoetan ibiltzea.

Gaiak luzerako ematen du, baina badira Magic-en bideojokoak ere. Guk fisikoa nahiago dugu; lagunekin fisikoki gelditzen gara eta gehiago ikusten zaigu. Egia da pandemiarekin dendek ezin izan zituztela txapelketak antolatu eta arauak aldatu zituztela, adibidez, beste batek ezin zuela zure baraja moztu esanez. Orduan, pila bat jaitzi zen eta bideojokoak gora egin zuen.

6 Nola hasi zineten?

Haitz: 11 edo 12 urterekin. Gasteizko lehengusu batek jokatzen zuela ikusi nuen, baina beti aldamenetik bezala ikusten nuen zaila zirudielako. Herrian Hodei Unamunorekin hasinintzen berak Iruñean jokatzen zuen lehengusu bat zuelako eta azkenean gurasoei kartak erosteko eskatuz jokatzen hasi ginen; gaizki, baina hasi ginen. Gorka 16 urterekin edo hasi zen, nire etxean.

7 Urte hauetan jokoa garatu da?

Pila bat aldatu da, esparru guztietan. Ekonomikoki kartek dirutza kostatzen dute. Lehen ez zuten hainbeste balio; urtean hiru edizio egiten zituzten, gaur egun hamar bat egiten dituzte.

8 Nola lortzen dituzue kartak?

Dendetan eta Interneten erosten ditugu. Altsasun Zelai bideoklubean zerbait badago. Bestela, Gasteizen eta Iruñean. Azkenean,

karta bat lortzeko sobreak erosten egon behar bazara, askoz errazago da karta hori duen pertsona bati erostea.

9 Txapelketa gehiagotan parte hartu duzue, ezta?

Haitz dendetan egon da: Madrilan, Bartzelonan, Iruñean, Gasteizen, Bilbon, Errenterian zaletasun handia dago eta lagun asko ditugu, Valladoliden, Suancesen ere askotan egon gara...

10 Entrenatzen duzue?

Entrenatzea jokatzea da. Denbora tarte batean ez badugu jolasten, nabaritzen da. Hodeirekin txikitzen jokatzen genuenean aspertu egiten ginen beti karta berdinekin jokatzean eta kanpora joaten ginenean toki guztietatik jipoia jasotzen genuen. Karta faltsuak inprimitu genituen gure artean jokatzeke. Tabernetan barajak utzi nahi ditugu nahi duenak hartzeko eta jokatzen hasteko. Whatsapp bidez gelditzen gara. Orokorrean, egunero izaten da. Dena den, profesionalak ere badaude, entrenatzen dutenak.

11 Friki dela esan dizute?

Baina zer ez da friki? Jendea futbola ikustera joaten da eta hori ez da frikismoa? Beste frikismo mota bat da. Mahai jokoa friki bezala sailkatuta daude. Orain ez dago hain gaizki ikusita; ez gara frikiak, kartarik arraroenak gara. Izendapena pixka bat aldatu da.

**EMAIOZU
BULTZADA
ZURE
IRUDIARI**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu